


# Nafarroa, lurralde sortzaiilea



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



<b>Kultura ekintza</b> .....	<b>3</b>
<b>Deialdiak</b> .....	<b>4</b>
<b>Programa propioak</b> .....	<b>8</b>
<b>Hitzarmenak</b> .....	<b>16</b>

<b>Liburutegi Zerbitzua</b> .....	<b>21</b>
<b>Liburutegien sarea</b> .....	<b>22</b>
<b>Dokumentu funtsa</b> .....	<b>24</b>
<b>Mailegu zerbitzua</b> .....	<b>26</b>
<b>Erabilerak</b> .....	<b>28</b>
<b>Jarduerak liburutegietan</b> .....	<b>29</b>


<b>Artxiboak</b> .....	<b>32</b>
<b>Jarduerak eta hedapena</b> .....	<b>33</b>
<b>Zerbitzu publikoak</b> .....	<b>37</b>
<b>Dokumentazioa</b> .....	<b>39</b>
<b>Baliabide ekonomikoak</b> .....	<b>41</b>
<b>Dokumentu Ondarea Kudeatzeko Atala</b> .....	<b>42</b>

<b>Museoak</b> .....	<b>44</b>
<b>Nafarroako museoa</b> .....	<b>45</b>
<b>Karlismoaren museoa</b> .....	<b>49</b>
<b>Julio Caro Baroja</b> .....	<b>52</b>
<b>Iratxeko Monasterioa</b> .....	<b>54</b>
<b>Andre Maria Gaztelupekoaren Eliza</b> .....	<b>54</b>
<b>Museoetarako eta bilduma museografiko iraunkorretarako laguntzen kudeaketa</b> .....	<b>55</b>
<b>Ondare kultural immateriala</b> .....	<b>58</b>

<b>Baliabideen eta garapen estrategikoaren atala</b> .....	<b>59</b>
<b>Parte-hartze plana</b> .....	<b>60</b>
<b>Argitalpenak</b> .....	<b>62</b>
<b>Prestakuntza</b> .....	<b>64</b>
<b>Berdintasuneko unitateak</b> .....	<b>65</b>
<b>Interreg Europe proiektua. Kultura eta sormen industriak: CRE:HUB</b> .....	<b>67</b>
<b>Mezenasgoa, Gazteriaren Plana eta Nafarroako Kultura Kontseilua</b> .....	<b>68</b>

<b>Ondare Historikoaren Zerbitzua</b> .....	<b>69</b>
<b>Sarrera</b> .....	<b>70</b>
<b>Ondareari buruzko Europako 2016ko Jardunaldiak</b> ..	<b>71</b>
<b>Ondare Arkitektonikoaren Atalaren jarduketak</b> .....	<b>72</b>
<b>Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala</b> .....	<b>74</b>

# Kultura ekintza



## Artea eta kultura

Deialdiak hogeit hamar edizio baino gehiago ditu eta helburua da Nafarroako toki entitateetan jarduerak artistiko eta kulturalak sustatzea, ondoko sektoreetan: musika, lirika, antzerkia, dantza, zinema eta ikus-entzunezkoak. Aurten 74 herritara iritsi da eta amaierako aurrekontua 281.046,89 eurokoa izan da.

## Mankomunak

Helburua da Nafarroako toki entitateek modu bateratu edo elkartuan antolatutako jarduerak artistiko eta kulturalen programan antolatzea laguntzea. Arte eta kultura deialdiaren gisan, hogeit hamar edizio baino gehiago ditu. Aurten 20 herritara iritsi da eta amaierako aurrekontua 73.493,11 eurokoa izan da.

## Herri kultura tradizionalaren zabalkundea 2016

Aurreko deialdiek ibilbide luzea dute; hau berriz, deialdi berria da, lehen aldiz 2016an sustatua. Deialdiaren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko kultur ondare tradizionalaren adierazpideen sustapena eta zabalkundea egitea, adierazpen horiek Nafarroako tradizioari eta folkloeari dagozkiela: ikuskizunak, erakusketak, jaialdiak, jardunaldiak, hitzaldiak eta bestelakoak, Nafarroako herri kultura tradizionala sustatzen eta gozatu dutenak. Entitate onuradunak 10 izan ziren eta beren jarduerak 20 toki baino gehiagotan egin zuten. Deialdiaren amaierako aurrekontua 51.223,00 eurokoa izan zen.

## Arte ikasketetan sakontzeko beka

30 urte baino gehiago dituzten beka hauekin, 30 urtetik beherako gazteei laguntza ematen zaie arte ikasketak zabaltzeko, ondoko modalitateetan: arte plastikoak, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak eta musika, bikaintasunaren eta garapen artistikoaren premisarekin, Espainia mailako zein atzerriko prestigiosoko ikastetxeetan.

Aurten 10 beka berri eman dira eta 11 luzatu. Amaierako aurrekontua 256.759 eurokoa izan da.

## Film labur eta ertainen ekoizpena 2016 eta 2017an

Laguntza hauek fikziozko, animaziozko edo dokumental erako lanak ekoiztera bideraturik daude. Aurrekontua 90.000 eurokoa da, bi aurrekontu ekitalditan. Aurtengoari 40.000 euro dagozkie.

## Zinematografia jaialdiak eta lehiaketak

Deialdiaren xedea da izaera eta eduki kultural eta/edo artistikoa duten zinematografia jaialdiak eta lehiaketak antolatzeko laguntzak arautzea. Deialdi bat enpresa eta profesionali zuzenduta dago eta beste bat irabazi asmorik gabeko entitateei. Deialdietako bakoitzak 20.000 euroko aurrekontua du.

## Film luzeen ekoizpena 2016 eta 2017an

Deialdi honen helburua da fikziozko, animaziozko edo dokumental erako film luzeen ekoizpena bideratutako laguntzak emateko arauak paratzea. Guztizko aurrekontua 210.000 eurokoa da, bi ekitaldi ekonomikotan. 105.000 euro dira 2016rako.

## Maila profesionaleko Arte eszenikoen eta musika arteen programazioa Nafarroako Udaletarako

Deialdiaren xedea da udalek arte eszenikoetako profesionalak kontratatu ditzaten sustatzea, bereziki dantza eta Nafarroako sektorea lagunduz. 451.000 euro izan dira guztira. 32 gune eszeniko bete dira 31 herritan.

## Arte eszeniko eta musikaren arloko ekoizpenen birak antolatzeko, eta feria, azoka, jaialdi eta/edo ekitaldi profesionaletan parte hartzea 2016an

Deialdiaren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko enpresek eta profesionalak (arte eszenikoen eta musikaren arloko konpainia profesionalak eta banaketa enpresak) ekoiztutako arte eszenikoen eta musikaren arloko ikuskizunen birak antolatzeko eta feria, azoka, merkatu, jaialdi eta beste ekitaldi profesionaletan parte hartzeko laguntzak ematea, Nafarroako enpresa artistikoei laguntzeko eta haien proiektzioa sustatzeko, Foru Komunitate barruan nahiz kanpoan.

Deialdi hau berria da. Lehen edizioan 7 entitate lagundu dira diruz. Guztira, 14.027,44 euro eman dira.

## Nafarroan arte eszenikoen eta musikaren arloko ekitaldiak, jaialdiak eta/edo lehiaketak egitea enpresa eta profesionalak antolatuta

Deialdi honen xedea da enpresa eta profesionalak antolatutako arte eszenikoen eta musikaren arloko ekitaldiak, jaialdiak eta/edo lehiaketak egiten laguntzea. 5 entitate onuradun izan dira eta zenbatekoa 60.000 eurokoa izan da.

## Kultur zabalkundea

Deialdi honen xedea da ohikotasunez eta aldian-aldian humanitateen eremuan egiten diren garrantzi bereziko kultur proiektuetarako laguntza ematea. 8 entitate onuradun izan dira eta 130 jarduera baino gehiago egin dituzte. Osotara, deialdiaren zenbatekoa 115.000 eurokoa da.

## Ekoizpen eszenikoak

Osotara 4 ekoizpen lagundu dira diruz eta amaierako kostua 82.750 eurokoa izan da.

## Proiektu artistikoak


Xede berarekin (proiektu artistikoak laguntzea) deitu dira bi deialdi, bata arte eszenikoen eta musikaren arloko proiektuetarako, 50.000 eurotik beherako aurrekontuarekin, eta beste bat 50.000 eurotik gorako proiektuetarako.

Lehenbiziko deialdiak 200.000 euroko aurrekontu bat du, guztira, eta 100 jarduera lagundu ditu diruz. Horietara, 27.369 pertsona bertaratu dira.

Bigarren deialdiak 1.100.000 euroko aurrekontua du. 217 jarduera lagundu dira diruz, eta 93.925 pertsona bertaratu dira.



## Gauzaturiko aurrekontua



## Herrik


Artea eta kultura: 74



Mankomunatua: 20



Herri kultura zabal-kundea: 22



Udaletxeak: 31



## Elkarte onuradunak

Herri kultura zabal-kundea: 20



Birak eta feriak: 20



Jaialdiak eta ekitaldiak: 5



Kultur zabal-kundea: 8



Ekoizpenak: 4



## 400/1000

400/1000 programaren lehen aldian 2.585 pertsona bertaratu dira, ekainaren 3tik 25era, ostiral, larunbat eta igandeetan, Nafarroako 38 herri txikitan antolaturiko jardueretan.

Ekimen hau abian jarri da Nafarroako biztanle gutxiago eta baliabide mugatuko hainbat herri (400-1.000 biztanle artekoak) kulturara iristeko dituzten zailtasunak arintzeko. Programa Foru Komunitateko lurralde guztian barna hedatu da.

Ikuskizun guztiak doakoak izan dira eta herrietako hainbat agertokitan eman dira (frontoiak, zentro zibikoak, liburutegiak, gaztegunek, plazak, udal zinemak, anfiteatroak, kultura etxeak)

Gauzaturiko amaierako aurrekontua 93.419,60 eurokoa izan da.

## Kultur

1996an antolatu zen aurrenekoz.

Programa hau udako garaian, ekainaren 17tik irailaren 10era, kultura eskaintza erakargarri bat izateko sortu zen. Gainera, sektore artistikoa laguntzeko eta musikaren eta arte eszenikoen hedapena indartzeko ere balio du, bereziki dantzari eta arte plastikoari dagokienez. Nafarroa barnean tokiko garapenerako eta motor izateko kultura-turismoa binomioaren alde egin duten herriei zuzentzen zaie.

Programaren edizio honetan hiru izan dira ardatzak:

- Herri musika (folka, jazz, bluesa, popa, bestelako musikak).
- Dantza garaikidea eta tradizionala.
- Arte plastikoak.

Programa interes turistiko bereziko 40 agertoki, herri, monasterio eta tokitara iritsi da, eta 14.400 pertsona bertaratu dira. Amaierako gastua 282.287,65 eurokoa izan zen.





## Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia

Zinemaldiaren X. edizioa otsailaren 8tik 14ra garatu zen. Egoitza nagusia Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregia izan zen eta hiriko beste gune batzuk ere baliatu zituen, jarduera paraleloak egiteko. Jaialdi honen helburua da hainbat mailatan topaketak sortzea aurrera egiteko jarrera berritzailearekin, ikusmira lan ausartetan jartzea, errealizatzaileek filmetako subjektuekin eta publikoarekin duten konpromiso etikoa baloratzea eta errealitate eta adierazpen independentearen ezagutza sustatzea.

Oso tara, Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiaren X. edizioak 8.115 pertsona bildu zituen. Deialdiaren amaierako aurrekontua 270.963,00 eurokoa izan zen.

Aurten 1.378 filma aurkeztu dira, eta horien artean jaialdiak hogeiren bat hautatzen ditu lehiaketan parte hartzeko. Argi dago zein den lehiaketaren asmoa: Aukeratutako zinegileek orain arteko bideetatik kanpo dauden pelikulak aurkeztea, erabateko konpromiso etikoarekin, betiere. Hortik aurrera, askatasun osoa dago bai edukiaren aldetik, bai formaren aldetik. Epaimahaiak lanen kalitatea eta originaltasuna baloratuko ditu eta, batez ere, Jean Vigok esaten zuen moduan, lan horiek “begiak

irekitzeko eta itxuraz harago ikusten laguntzeko” duten gaitasuna.

### Punto de Vista 2016 jaialdiko saridunen zerrenda

- Pelikula Onenaren Punto de Vista Sari Nagusia, 10.000 eurokoa: *Oleg y las raras artes* (Espainia), Andrés Duquerena, “artista baten erretratura egindako hurbilpen berritzaile, koherente eta samurratetik”.
- Zuzendari Onenaren Jean Vigo Saria, 5.000 eurokoa: Jakob Brossmanen *Lampedusa in Winter* filmagatik (Erresuma Batua), “bere lehen pelikula luzea zentzu onez, segurtasunez eta gizatasunez egiteagatik”.
- Pelikula Labur Onenaren Saria, 3.000 eurokoa: Jela Hasler zuzendariaren *The Meadow* (Suitza), “Modu sotil, zehatz eta dotorean errealitate politiko nahasiaz hitz egiteko gai izateagatik”.

Epaimahaiak erabaki du aipamen berezia ematea Keywan Karimiren *Writing on the City* (Iran) pelikulari, “pelikula ausarta eta inspiratzailea izateagatik; bidenabar, gure elkartasuna adierazi nahi dugu Punto de Vista jaialdiak *223 words* kanpainarekiko agertu duen konpromisoagatik, 6 urteko espetxe zigorrera kondenatutako Keywan Karimi zuzendariaren alde”.

## Sari bereziak

- Ikusleen Sari Berezia Pelikula Onenarentzat, 1.500 eurokoa, Aleksandra Maciuszeken *Casa Blanca* pelikulari (Polonia).
- Gazteriaren Saria Pelikula Onenarentzat, 1.500 eurokoa, Aleksandra Maciuszeken *Casa Blanca* pelikulari (Polonia) “pelikulak erakusten duen intimitate maila filmatzeko zailtasunagatik, dramatismotik aldendu, eta, batez ere, giza harremanen sakontasunari eta konplexutasunari erreparatzen dielako”.

Era berean, Gazteriaren Epaimahaiak erabaki du aipamen berezia ematea Guido Hendriksen *Among Us* filmari (Herbehereak), “bere ausardiagatik, gizarteak kondenatutako testigantzei ahotsa eman, eta tabu baten inguruan eztabaida sakona sortzen laguntzeagatik”.

- Darkness Award. Marah Al Hassanen *Children* pelikula laburra izan da Darkness Award sariaren lehen irabazlea. Ordenagailu bat, disko gogor bat eta kamera bat jaso ditu. Khaldiya Jubawiren *Another Kind of Girl* filmak jaso du bigarren saria: ordenagailu bat eta disko gogor bat. Walaa Al Alawiren *The Girl, Whose Shadow Reflects The Moon* pelikulari eman zaio hirugarren saria, kamera bat.

- X Films Proiektua. Azkenik, X Films Proiektuaren deialdiaren Hautapen Batzordeko kideek, Mercedes Álvarezek, Marie-Pierre Duhomelek eta Alfredo Sanzolek, erabaki dute, aurkeztutako hiru proiektuen berri idatziz eta jendaurreko azalpenean izan ondoren,

X Films Proiektua Velasco Brocaren proiektuari ematea (*Aldare Berria* behin-behineko izena du), ematea, “bere izaera esperimental erabatekoagatik eta plazaratzen dituen desafio formalen indarragatik”. Beste bi proiektuak Carolina Astudillok eta Xacio Bañok aurkeztu dituzte.





## Erriberriko antzerki klasikoko jaialdia

Jaialdi sendoenetako bat da, ibilbiderik luzeenetakoa duena. 2016an 17. edizioa izan zuen, uztailaren 22tik abuztuaren 6ra, Erriberrin, ondoko agertokietan: La Cava, Erriberriko Jauregia (Arkuen aretoa eta Armen patioa), Paradorea, Teobaldoen plaza, Karlos III.aren plaza, Kultura etxea, Ikastetxe publikoa.

Helburua da kalitatezko antzerki ikuskizunen hedapena laguntzea eta sustatzea, baita horren konbentzionalak ez diren proposamenak ere, eta Nafarroako sektore profesionalaren lana sustatzea. Klasikoak gaur eguneko publikoaren arabera berritzen dituzten ikuskizun garaikideen alde egiten du. Aipatzekoak dira zenbait desgaitasuneko publikoari egokituriko hiru antzezpen izan zirela eta egonaldi artistikoa ere egin zela.

Programazioaren baitan hainbat zikloren inguruko hedapen jarduerak egin ziren (asteburua, kalea eta familia, “Beste klasiko batzuk”, prestakuntza jarduerak eta sormen egonaldiak).

Edizio honetan 5.241 pertsona bertaratu ziren 40 antzezpen izan zituzten 20 ikuskizunetara.

22 antzerki talde profesional etorri ziren, horietako 7 Nafarroakoak.

Deialdiaren amaierako aurrekontua 3.777.240 eurokoa izan zen.



## Lizarrako Antzinako Musikaren Astea

Aste hau programarik zaharrena da; aurten 47. edizioa izan zuen. Irailaren 1etik 10era egin zen. Helburua du publiko guztiarendako sustatzea eta hedatzea antzinako musika, hainbat jarduera eginez: kontzertuak zein prestakuntza jarduerak. Kontzertuez gain bestelako hedapen jarduerak egin ziren (hitzaldiak, solasaldiak, masterclasseak, ikastaroak, dantza eta zinema), denak ere Erdi Aroko, Errenazimenduko eta Barrokoaren aroko antzinako musikari zuzenduak. Programatu ziren 12 jardueretan 1.040 pertsonak hartu zuten parte. Amaierako aurrekontua 107.209,16 eurokoa izan zen.

## Organorako Musika Nafarroan zikloa

2016an 32. edizioa izan du. Helburua du Nafarroako elizetan erabilgarri dauden organoak eta musika-tresna honendako berariaz idatziriko musika ezagutaraztea.

Edizio honetan 8 kontzertu eta bestelako hedapen jarduerak egin dira (4 topaketa profesionalekin eta 2 saio didaktiko Cascanteko Ikastetxe Publikoko ikasleekin), musika-tresna honen ezagutza sakontzera bideratuta.

Irailaren 16tik azaroaren 4ra egin zen, ondoko tokietan: Iruñeko Musika Kontserbatorio Profesionala, katedrala, San Domingo eliza, Salvatore eliza eta San Nikolas eliza; Leireko monasterioa; Mañeruko San Pedro eliza; Orreagako kolegiata, Lesakako San Martin eliza, Cascanteko Erromeroaren Amaren basilika.

2.060 pertsonak hartu zuten parte eta amaierako aurrekontu gauzatua 48.000 eurokoa izan zen.



## Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdia. DNA.


Jaialdi honek argia ikusiko du Nafarroan dantzarako gunea berreskuratzeko bokazioarekin eta gure Komunitatean erreferentziazko programa artistikoetako bat bilakatzeko xedearekin, diziplina hau nafar lurralde guztian barna hedatuz. DNAREN zutabeetako bat aniztasunari erantzutea eta publiko berriak sortzea da. DNAREN xedea da erreferentziazko gune bihurtzea dantza garaikideko berrikuntzarako, sormen prozesuen alde eginez, beste hizkera batzuetara irekiz eta dantza garaikidean punta-puntako sormenean eta azken joeretan zentratuz. Hala ere, tarte utzi zaie dantza akademikoari eta herri kulturatik abiatuta aldatzen ari den dantzari. DNAREN xedea da erreferentziazko gune bihurtzea dantza garaikideko berrikuntzarako, sormen prozesuen alde eginez eta beste hizkera batzuetara irekiz.

Urriaren 6tik azaroaren 30era egin zen, ondoko tokietan: Lesaka, Tafalla, Bera, Irurtzun, Lizarra, San Adrian, Atarrabia, Zangoza, Zizur Nagusi eta Agoizko kultura etxeak, Tuterako Moncayo zinema, Barañain Auditorioa, Nafarroako Liburutegia, Noaingo eta Txantreako liburutegiak, Uharte Zentroa, Ziadadela (Armen Aretoa), Kultura Departamentuko isabeldar patioa.


Osotara 3.838 pertsona bertaratu ziren. Nafarroako Gobernuaren ekarpena 91.116,55 eurokoa izan zen, udalen ekarpena gehituz gero, 174.116,55.




## Bertaratutakoak




## Gastuak




## Herriak / agertokiak



## Datak



## Ikuskizunak / jarduerak



## Nafarroako Kultura Kudeatzaileen Elkarte

25.000 euroko hitzarmen izenduna sinatu zen, ondoko jarduerak finantzatzeko:

- “Gune eszenikoan publikoak kudeatzeko plan bat prestatzeko metodologia”. Lantegi praktikoa
- Nafarroako Kultura Kudeaketako III. Kongresua.
- Kultura kudeaketaren profesionalendako kontabilitate eta finantza ikastaroa.

Hiru jardueretan 151 pertsonak hartu zuten parte.

## Nafarroako Antzokien Sarea elkarte (NAS)

Entitateak 31 herri bazkide ditu.

Hitzarmen honen azken helburua da Foru Komunitateko herritarrek arte eszenikoen eskaintza hobea izan dezatela, kalitatezko eta intereseko programazio egonkor bati loturiko gune eszenikoen sustapenaren bidez.

Hitzarmenaren kopurua, guztira, 280.000 eurokoa da, lau urtetan banatuta.

- 2016. urtea: 70.000 euro.
- 2017. urtea: 70.000 euro.
- 2018. urtea: 70.000 euro.
- 2019. urtea: 70.000 euro.

## Nafarroako Antzerki Eskola (NAE).

NAErekin hitzarmena 250.000 eurokoa izan zen eta 147 jarduera laguntzen bultzatu zuen. 31.862 pertsona bertaratu ziren horietara.

## Barañain auditorioa

Auditorioko programazioa laguntzeko asmoz hitzarmen bat sinatu zen, 200.000 euroz zuzkitua. Auditorioko 2016ko programazioa ondoko lau zutabetan oinarritu zen:

- Periferia: Nafarroako dantza gunea.
- OnArt: Arte eta ikaskuntza.
- InArt: Arte eta inklusio zentroa.
- BÑB: Barañain Bizi.


53 ikuskizun egin ziren eta 20.300 ikusle izan zituzten. 9 dantza master eta “Hazi Arte” eskola kanpaina ere egin ziren.

## Iruñeko Orfeoia


280.000 euro.

- 50 kontzertu (26 doakoak).
- 41.000 ikusle.


## Zenbatekoa



## Jarduerak



## Bertaratutakoak



## Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditoriuma


Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditoriumeko kultura jarduerak sustatzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak 2016an 4.183.707,87 euroko diru ekarpena egin zuen.

Ekarpen hori bideratuta dago ondokoek sorturiko gastuak estaltzera:

- Programazio propioa.
- Punto de Vista jaialdia.
- Erriberriko Antzerki Klasikoa.
- Film Commission eta filmoteka.
- Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (abuztuaren 31tik aitzina).

Osotara, programazioan 86.295 pertsona izan ziren, horrela banatuta:

Baluarte Auditoriumeko programazio propioa: 40.251



## Baluarte fundazioarendako diru laguntza


2016an aipagarria da Baluarte Fundazioaren eta Gizarte Politiketako Departamentuaren arteko akordioa, zeinaren bidez edukieraren %3, 2016ko azarotik aitzina, Departamentuak hautaturiko GKEen artean banatuko da, ahuldade egoeran dauden kolektiboek kulturara iristea izan dezaten. Publikoen salbuespen tratamenduko dinamika honek osatu egiten du “Baluarte Gaztea” programa onarpen handikoa, zabalduz ari dena, 1340 sarrera kudeatu baitira osotara programa honen bidez. 2016an programak hobekuntza esanguratsua izan du, “Gazte abonamendua” gehitu baitzaio: ikuskizun guztietarako %70eko deskontua.




## Tafalla kulturguneko ekipamendua

Proiektuak aukera eman dio Tafallari lehen mailako ekipamendu kulturala izateko. Eskualde mailakoa izanen denez, programazio profesional egonkorra ahalbidetuko du, eta baita baldintza egokiak izatea zein toki entitateekin eta herritarrekin jarduera kulturala garatzea.

Nafarroako Gobernuaren amaierako ekarpena 340.576,44 eurokoa izan zen. Udalak 122.588,39 euro paratu zituen.



# Liburutegi Zerbitzua



Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema liburutegi nagusi batek eta Foru Komunitateko lurraldean barna zabaldurik dauden 92 liburutegik osatzen dute.

Nafarroako Liburutegia Iruñeko Mendebaldea auzoan dago kokatua. Berau da sistemaren burua eta xede nagusizat du Nafarroako ondare bibliografikoaren bilduma nagusia zaintzea eta sareko gainerako liburutegiekin koordinazio eta laguntza eginkizunak betetzea.

Sareko liburutegiak 83 udalerritan daude eta Nafarroako biztanleriaren %89,1 hartzen dute (10 herritarretik 9k liburutegi publiko bat du bere udalerrian). Liburutegi hauetako 9 Iruñean daude, beste 19k 10.000 biztanletik gorako herrietan ematen dute zerbitzua, 12k 5.000 eta 10.000 biztanle arteko herrietan, eta gainerako 62k 5.000 biztanletik beherako herrietan.


Liburutegietako azpiegiturei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateak zerbitzu puntu bat du 6.964 biztanleko. Liburutegiko estaldurak irakurketa postu bat eskaintzen du 97 biztanleko eta Internetera sarbidea duten erabilera publikoko ekipo informatikoei dagokienez, kopurua 1.562 biztanleko ekipo batekoa da.

### Nafarroako liburutegi publikoen sistema


Liburutegi nagusia



92 liburutegi lurraldean barna banaturik



184 liburuzainek ematen dute zerbitzua



Erabiltzaileendako 410 ordenagailu, Interneterako sarbidea dutenak




6.631 irakurketa postu



Nafarroako liburutegi publikoetan 184 liburuzain ari dira lanean (168, lanaldi osoko langiletzat jotzen badira). Sareko liburutegiek, Nafarroako Liburutegia alde batera utzita, batez beste 1,4 profesional dituzte liburutegiko (erreferentzia gisa lanaldi osoak hartuta) eta 93 liburutegietatik, 71k langile bakarra dute. Langile hornidura da sarean hobe daitekeen alderdietako bat. Areago, herritarren eskari nagusien artean dagoenean irekiera ordutegiak zabaltzea eta opor aldietan itxiera ekiditea.


## Instalazio berriak

2016an Lesakako eta San Adriango liburutegiak jendaurrera ireki ziren. Lehenago ere baziren bi herri horietan liburutegiak, baina ez zuten aski altzari eta ekipamendu herritarren beharrak asetzeko.



Liburutegi publikoek 2.247.242 dokumentu dituzte. Kopuru horrek, 2015ekin (2.228.981 dokumentu) erkatuz gero, %0,77ko hazkundera dakar eta biztanleko 3,5 dokumentuko adierazle bat ezartzen du. Kopuru hori Espainia mailako batezbestekotik (1,81) oso gora dago eta Nafarroa autonomia erkidegoen artean buru kokatzen du, alderdi honi dagokionez. Liburutegi publikoetako funts bibliografiko eta dokumentaletan, ehuneko handiena (%88,67) liburu eta aldizkariak dira. %7,26 ikus-entzunezko dokumentuak (bideoak eta DVDak), %2,35 soinu dokumentuak, %1,33 dokumentu elektronikoak (CDak, DVD-ROMak eta liburu elektronikoak eta dokumentu digitalak) eta gainerakoa (%0,40) zernahi motako materialak (mapak, grabatuak, argazkiak, kartelak, partiturak, liburuxkak, etab.).

### Funts bibliografiko eta dokumentalak



### eBiblio Nafarroa

Nafarroako liburutegi publikoetako liburu elektronikoaren plataformak erabiltzaileei 1755 titulu eskaini zizkien. Plataformak aukera ematen dio Nafarroako liburutegi publikoetako txartela duen zeinahi erabiltzaileari ordenagailuan, mugikorrean edo tabletan zein e-reader batean audioli-buruak eta liburu elektronikoak irakurtzeko, euskaraz eta gaztelaniaz.


Liburutegietako funts bibliografiko eta dokumentala osatzen duten 2.246.151 dokumentuen artean, 497.297 (%22,1) Nafarroako Liburutegiari dagozkio. Nafarroako Liburutegiaren xede nagusia da Foru Komunitateko dokumentu funtsaren depositu lana egitea, bereziki ondare bibliografikoari dagokionez. Bestetik, sareko gainerako liburutegietan (Nafarroako Liburutegia alde batera utzita) dauden dokumentuak 1.750.000 dira. Beraz, Liburutegiko 19.000 dokumentu ditugu batez beste. Kopuru hori onargarria da, izan ere, nazioarteko jarraibideek ezarritako gutxienekoa (2.500 dokumentu) baino aise altuagoa baita.

**Funts bibliografiko eta dokumental gehienak Nafarroako Liburutegi Publikoen Katalogoan daude. Horrek aukera ematen dio zeinahi herritarri dokumentuak non dauden eta eskuragarri dauden jakiteko sareko 93 liburutegietatik 79tan**

Krisi ekonomikoak astinduriko azken bost urteetan liburutegietako funts bibliografiko eta dokumentaletan izandako bilakaerari dagokionez, liburutegiek beren funtsak areagotzen jarraitu dute, nahiz eta atzeraldi ekonomikoaren aurreko urteetan baino maila txikiagoan. Hazkundera are garrantzitsuagoa da kontuan izanik liburutegiek zaharkiturik gelditu diren interesik gabeko obren katalogo kolektiboa liberatzeko espurgo politika ere aplikatzen dutela, katalogoa depuratuz, erabiltzaileen eskariari egokituriko dokumentuen funts eguneratu bat izateko.

Funts kopuru handiena duten liburutegiak, ordenaren arabera, hauek dira: Nafarroako Liburutegia, Tuterako Liburutegi Publikoa eta Lizarrako Liburutegi Publikoa.


**Funtsak: 2014-2016 bilakaera**



Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemak 875.054 dokumentu mailegatu zituen 2016an; horietarik 769.843 Liburutegien Sarekoak ziren eta 105.211 Nafarroako Liburutegikoak (sistemaren buru den liburutegia). Nafarroako liburutegi publikoek batez beste urtean 1.37 dokumentu mailegatu zituzten biztanleko. Tasa horrek gorakako joera markatzen du azken urteetan, izan ere, 2015ean biztanleko mailegu tasa 1,43koa zen eta 2014an 1,48koa. Maileguak euskarriaren arabera aztertzen baditugu, 592.564 (%67,7) liburuak dira, 14.563 (%1,7) aldizkariak dira, 19.887 (%2,3) soinu dokumentuak dira, 237.773 (%27,2) ikus-entzunezkoak dira eta 9.026 (%0,8) dokumentu elektronikoak edo liburu digitalen maileguak dira.


**Nafarroako liburutegi publikoetako liburu elektronikoaren plataforman, 2016an, 6960 liburu elektroniko mailegatu ziren. Biztanleko egindako maileguak aintzat hartuta, Nafarroa mailegu gehien egin dituzten autonomia erkidegoetako laugarrena da.**

### Dokumentuen mailegua




Maileguen kopuruaren joera, azken urteetan, beheranzkoa da. Beheranzko joera horri azalpena ematen ahal zaio aintzat hartzen badugu, batetik, aurrekontuan murrizketa izan dela eta, beraz, liburutegiek ezin izan dutela bilduma aski erakargarria eskaini, eta bestetik, erabiltzaileen kontsumo kulturalako azturetan aldaketa izan dela, bereziki soinu eta ikus-entzunezko edukiei dagokienean. Horrela, liburu maileguak aztertzen baditugu ikusiko dugu aurreko urteekin behar bada apenas suma daitekeela, %1ekoa baita. Soinu dokumentuen maileguak (%6,6ko behar bada) eta, batez ere ikus-entzunezkoen maileguen behar bada (%14,2) dira aurreko urteekin erkatuta gure liburutegietako maileguen kopuru guztiaren beheranzko joera zehazten dutenak.

### Evolución del préstamo: 2014-2016



Nolanahi ere, biztanleko mailegu tasa (1,37) Estatuko batez bestekotik (1,12) gora dago oraindik ere. Aldiz, dokumentuen errotazio indizea (mailegaturiko dokumentuen bolumena liburutegietan guztira den bildumarekin erlazionatzen duen adierazlea) Nafarroako Foru Komunitatean 0,39koa da, Espainia mailako batez bestekotik (0,62) oso behera.

**Mailegu kopuru handiena duten liburutegiak, ordenaren arabera, hauek dira: Nafarroako Liburutegia (105.211 mailegu), Burlatako Liburutegi Publikoa (44.854 mailegu) eta Iruñeko Liburutegia-Civican (36.415 mailegu).**



Nafarroako liburutegi publikoetara, 2016. urtean zehar, bi milioi bisitaritik gora joan ziren. Egindako bisita estimazioen arabera eta, behin betiko datuen faltan, 2016an zehar bisita kopurua bertsua da joan den urtekoarekin erkatzen badugu (jaitsiera arrunt txikia da, %0,2ren ingurukoa). Nolanahi ere, kopuru aski positiboa da eta adierazten du liburutegiak erakunde finkatuak direla, herritarrek erabiltzen dituztela eta erabiltzaileendako oinarrizko eta funtsezko zerbitzuak direla.

Liburutegiko txartela duten erabiltzaileei dagokienez, Nafarroako liburutegi publikoek 260.794 erabiltzaile dituzte, hots, Nafarroako hiru biztanleko batek liburutegiko txartela du). Kopuru hori handitu da joan den urtearekin erkatzen badugu, izan ere, 2016an liburutegiko 10.754 txartel berri egin ziren.

## Txarteldun erabiltzaileak. 2014-2016 bilakaera

**2.014**  
Erabiltzaileak,  
guztira: 247.010  
Erabiltzaile  
berriak:  
10.551




**2.015**  
Erabiltzaileak,  
guztira: 251.992  
Erabiltzaile  
berriak:  
10.332



**2.016**  
Erabiltzaileak,  
guztira: 260.794  
Erabiltzaile  
berriak: 10.754



## Txarteldun erabiltzaileak, 2016




Liburutegiek beren helburu nagusien artean dute irakurketaren sustapena. Xede horrekin hainbat sustapen jarduera antolatzen dituzte. Liburutegi bakoitzak bere bildumaren, publikoaren eta ingurunearen arabera egokienak diren jarduerak egiten ditu. Egiten diren jardueren artean, aipagarriak dira: irakurketa klubak, ipuin kontalariak, erakusketak, irakurketa gidak, hitzaldiak, bisitak, jolasak, lehiaketak, liburuen aurkezpenak edo topaketak autoreekin, zenbait aipatzearen. Beste batzuk liburutegiko gunetik kanpo egiten dira, kasu igerilekuetan, ikastetxeetan, ospitaletan...

Liburutegi Zerbitzuak irakurketa sustatzeko 2.200 jardueratik gora kontabilizatu ditu. Jarduera horiek 2016an zehar egin ziren, liburutegietan edo liburuzain edo profesionalek egindakoak.

Ehunekotan, adierazgarrienak irakurketa klubetako saioak (%34,5), ipuin kontalariak (%16,3), bisita gidatuak (%12,4) eta liburutegian egindako hitzaldiak (%9,1) dira.

### Liburutegietako jarduerak (portzentaje-banaketa)



### Erabilera publikoko ordenagailuak eta Interneteko sarrera

Liburutegiak bere erabiltzaileen eskura uzten ditu Interneteko sarbidea duten ordenagailuak, informazio bilaketak egiteko edo jarduera ofimatikoetarako. 2016an zehar, Nafarroako liburutegi publikoetan osotara ekipo informatikoen 315.200 erabilera saio egin ziren.

Liburutegia	Funtsak			Maileguak			Izena emandako erabiltzaileak guztira			Interneteko erabiltzaileak		Jarduerak		
	Irakurketa postuak	Liburu eta aldizkariak	Ikus-entzunezkoak	Gainerakoak	Guztira	Liburu eta aldizkariak	Ikus-entzunezkoak	Gainerakoak	Guztira	Haurrak	Helduak			
Biblioteka de Navarra	356	379.511	94.637	9.249	497.913	70.405	36.454	209	105.911	3.070	37.538	41.011	33.988	351
Alezua/Aizua	126	29.501	6.077	591	36.169	11.600	4.220	69	43.091	630	3.304	3.950	6.230	20
Aditas	34	10.366	1.100	129	11.813	3.046	393	0	1.441	242	644	888	329	0
Aibar	23	11.854	1.037	29	12.905	1.393	179	1	1.474	53	111	163	435	4
Ain	44	12.439	1.607	278	14.324	2.107	803	4	2.934	84	295	303	1.063	16
Aracillo	26	12.938	989	129	14.057	2.685	693	3	3.215	281	480	774	973	11
Arceñón	160	27.879	2.677	649	31.205	14.761	4.756	104	49.622	1.918	4.706	6.684	2.610	28
Arañza	29	4.574	437	0	4.911	0	0	0	0	108	201	309	309	0
Azu	54	14.367	1.371	161	16.219	3.375	1.949	14	3.257	299	968	1.211	1.314	5
Azargoñe (Vuelta de)	80	15.526	3.334	385	19.239	9.383	4.231	6	33.630	784	2.549	3.285	1.514	30
Azpeitia	34	19.331	1.083	129	20.539	4.444	553	4	5.900	190	543	754	443	3
Azusa	40	13.335	1.054	245	14.639	1.730	373	0	2.122	144	363	508	914	0
Azusa	30	7.206	37	7	7.230	1.091	213	0	2.106	86	90	105	610	15
Azusa	44	10.528	2.657	166	13.351	8.469	6.330	45	12.864	317	428	743	3.500	0
Azusa/Espinal	26	19.149	1.470	229	20.856	1.567	693	10	2.262	72	180	270	2.171	30
Azusa	26	16.517	1.634	300	18.449	3.200	316	20	3.679	354	1.048	1.404	1.348	14
Bañuñón	120	33.402	7.934	244	41.880	16.303	12.233	63	28.569	1.170	8.443	9.639	9.729	139
Bardón	60	19.087	3.620	438	23.149	5.757	2.862	91	8.710	634	1.756	2.410	2.216	4
Baz	48	13.861	1.312	280	17.453	3.092	1.140	75	4.214	443	1.240	1.687	2.413	23
Basón	54	10.178	1.312	105	11.593	3.896	2.240	7	6.156	417	1.048	1.471	5.543	0
Basurto	304	19.360	2.937	248	22.545	10.225	6.369	34	14.079	1.237	3.203	4.784	3.806	20
Bautza	51	16.149	832	37	17.034	2.722	450	28	3.199	39	140	202	2.034	0
Bautza	192	35.525	6.413	411	42.351	28.508	16.289	207	44.654	1.426	8.384	9.818	13.480	45
Caballero	23	6.743	999	84	9.027	1.201	172	0	1.202	53	56	109	667	5
Castello	33	10.213	963	34	11.210	7.468	435	0	7.902	70	200	270	2.173	10
Caspe	44	11.471	1.048	217	12.736	2.930	863	175	3.972	251	467	719	1.614	12
Caspe	23	19.099	1.243	913	23.514	2.809	459	5	3.264	937	1.014	1.952	5.234	13
Caspe	57	16.894	1.907	324	18.739	3.719	763	10	4.494	381	1.017	1.373	918	0
Caspe	49	7.067	827	43	7.927	1.067	180	0	1.225	23	62	86	383	13
Castellón	48	14.999	2.573	443	18.015	2.278	1.202	1	3.461	417	1.011	1.430	2.287	0
Cintruéniga	51	17.848	2.370	330	20.548	4.893	3.240	34	10.267	741	1.891	2.671	6.863	0
Concha	130	22.317	1.875	240	24.429	5.038	1.491	11	6.241	651	1.804	3.248	6.036	0
Corret	30	16.109	2.047	341	18.497	2.282	514	25	3.062	304	1.204	1.547	4.518	0
Donzoko/Santesteban	44	11.848	513	119	12.480	2.540	777	10	3.247	0	479	0	5.500	0
Egilea (Vuelta de)	59	4.524	1.327	22	6.275	1.48	148	1	4.064	0	2.640	2.640	0	7
Estiba	170	42.385	6.240	380	49.000	19.453	7.196	51	28.700	1.295	7.935	9.250	9.099	148
Etxari Arantz	80	10.341	1.206	71	11.618	3.225	2.153	4	5.404	270	538	812	703	16
Falca	72	9.076	792	17	9.885	2.537	643	10	3.280	85	366	451	1.320	16
Falca	34	15.147	1.221	111	16.479	1.964	661	2	2.627	170	430	600	1.910	1
Fonelas	43	5.300	1.084	37	6.421	1.630	889	6	2.029	134	250	418	1.938	7
Funes	37	10.574	1.566	812	20.952	1.677	475	2	2.154	139	213	363	1.333	0
Fuñe	36	14.655	1.737	195	16.587	3.196	814	0	4.011	269	476	741	374	1
Huesca/Alcañiz	67	22.676	3.612	460	26.742	11.244	5.929	39	17.250	909	2.257	3.177	3.702	17
Iruñea	55	11.828	815	53	12.736	2.528	836	12	3.197	253	562	648	3.271	0
Lonago	43	10.576	682	36	11.294	1.124	325	32	1.481	108	316	424	1.420	0
Lorza	54	14.831	1.292	312	17.040	3.644	1.041	94	4.274	157	681	801	4.438	4
Lumbier	30	16.280	1.141	0	17.421	0	0	0	0	0	300	300	0	0
Leza	43	13.309	973	154	15.016	1.497	104	0	1.661	90	354	446	1.647	0

Liburutegia	Funtsak				Maileguak				Izena emandako erabiltzaileak guztira			Interneteko erabiltzaileak	Jarduerak	
	Irakurketa postuak	Liburu eta aldizkariak	Ikus-entzunezkoak	Gainerakoak	Guztira	Liburu eta aldizkariak	Ikus-entzunezkoak	Gainerakoak	Guztira	Haurrak	Helduak			Guztira
Alesia	83	17.741	1.465	301	19.508	1.924	874	14	3.140	598	448	900	3.500	15
Aldosa	112	10.317	2.130	264	20.701	4.603	1.124	9	3.594	335	1.614	1.952	2.639	17
Los Arcos	43	6.546	342	12	7.300	1.623	326	126	2.072	20	8	112	1.593	
Lumbier	28	9.885	1.063	17	10.965	2.040	1.011	0	3.051	132	262	375	1.084	4
Mañeru	30	0.485	0.00	97	9.670	1.347	403	0	1.750		300	300	0	5
Mazallo	50	20.341	1.032	72	21.438	5.017	1.724	14	6.756	202	518	710	2.836	42
Mérida	40	8.613	696	113	9.422	1.560	467	90	2.067	70	93	164	2.560	29
Mendavia	41	16.993	2.913	309	20.219	4.201	1.790	19	6.114	361	1.239	1.711	1.478	27
Mendigoritz	37	14.664	2.034	241	16.219	3.976	636	18	7.612	65	148	218	1.751	10
Milagro	51	12.304	1.376	151	13.831	1.603	139	0	1.742	241	543	785	9.674	0
Minucia de Arga	54	7.698	334	19	7.374	2.569	70	18	3.662	40	48	90	0	9
Monteagudo	48	13.211	891	120	16.322	663	280	18	880	50	120	190	0	0
Marichano	56	13.627	1.666	194	15.347	4.130	999	5	3.141	361	944	1.307	1.300	24
Nocín	97	20.928	2.851	189	23.948	12.427	1.929	25	14.381	1.111	2.462	3.560	3.082	35
Olano	18	9.438	170	0	9.608	0	0	0	0		300	300	0	1
Olartu/Urtugailo	84	13.347	1.200	165	14.810	3.130	799	6	3.200	100	291	390	3.101	2
Orre	43	19.232	2.079	412	21.696	3.880	782	4	4.646	381	1.038	1.716	1.156	14
Orreaga	35	3.493	405	0	3.898	2.643	4.810	117	14.789	191	540	731	6.994	5
Pamplona-Chantrea	153	32.267	6.271	598	39.198	13.273	8.632	64	23.989	1.146	6.674	7.808	7.250	68
Pamplona-Checa	323	34.850	7.394	989	42.138	23.470	12.816	124	36.410	2.650	15.890	18.609	9.271	908
Pamplona-Echavacoiz	80	19.894	2.844	568	23.326	1.349	130	6	1.490	101	534	640	1.212	0
Pamplona-Barcena	187	16.229	5.356	213	22.039	14.826	11.100	119	26.049	884	4.992	3.890	4.574	19
Pamplona-Mendikiri	124	15.634	3.740	148	19.522	14.274	7.063	41	29.309	1.080	4.013	5.074	3.738	30
Pamplona-Milagrosa	123	28.665	4.163	219	33.109	10.446	3.339	63	33.886	584	8.134	6.710	3.104	0
Pamplona-San Francisco	154	15.597	2.373	44	18.214	17.088	14.349	77	33.184	542	1.570	2.140	17.408	20
Pamplona-San Jorge	74	22.242	3.897	82	26.138	13.116	5.834	28	14.946	980	3.750	4.736	4.623	73
Pamplona-San Pedro	335	32.343	4.369	417	37.129	18.958	7.084	199	28.210	1.793	7.356	7.356	5.429	38
Pamplona-Yamaguchi	303	30.069	6.332	372	36.774	18.516	10.934	679	30.119	657	17.199	17.894	3.571	73
Pezulla	113	10.060	2.083	248	20.391	3.340	746	3	4.094	567	1.970	2.307	2.843	29
Puerto la Reina	65	16.152	1.390	158	17.701	2.740	592	4	3.294	292	596	891	1.174	15
Rivieracast	301	10.659	1.433	207	12.348	3.999	550	11	4.494	368	1.164	1.259	4.364	4
Ronces	16	11.799	1.000	140	12.939	672	146	0	604	89	120	104	342	9
San Adikiri	71	14.581	1.196	364	16.143	3.490	1.089	10	4.223	353	978	1.331	1.438	20
Sangüesa	94	10.498	1.979	170	12.647	4.740	1.790	1	4.228	492	1.902	2.404	3.204	6
Saragüeta	30	16.849	1.659	439	18.947	1.077	103	0	1.260	195	482	677	1.589	0
Scania	30	10.588	421	106	11.115	1.863	293	0	2.156	367	396	763	1.970	2
Tolosa	84	31.852	4.114	743	36.709	13.930	4.514	112	16.076	1.380	4.720	6.013	4.832	63
Tudela	190	46.517	2.679	649	49.795	19.864	4.07	17	20.668	3.380	9.589	17.994	6.881	90
Urdax	25	3.278	440	27	3.825	220	119	2	346	90	167	263	310	7
Valcarlos	71	12.809	1.992	282	14.677	1.508	142	3	1.670	171	594	771	284	21
Viana	74	13.790	1.690	464	15.944	3.120	890	12	6.063	300	1.000	1.692	3.882	49
Villaverde	44	15.336	895	64	16.499	4.340	310	3	4.650	284	618	910	1.343	7
Villava	91	19.836	2.331	290	22.459	9.490	4.023	8	13.028	942	2.976	3.920	3.650	40
Yerrola	40	18.468	471	112	19.051	740	435	30	1.197	34	149	182	2.880	10
Zar	93	29.703	3.438	490	33.631	17.730	8.435	48	26.210	2.638	6.570	9.200	3.466	20
<b>Total Bibliotecas</b>	<b>6.631</b>	<b>1.900.731</b>	<b>216.707</b>	<b>30.226</b>	<b>2.146.664</b>	<b>607.127</b>	<b>267.660</b>	<b>3.804</b>	<b>876.064</b>	<b>47.116</b>	<b>212.283</b>	<b>260.794</b>	<b>316.460</b>	<b>2.292</b>

# Artxiboak

--	--	--	--	--

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren jarduera artxibo-tratamendurako proiektuen eta hedapen proiektuen inguruan eratzen da. Artxibo-tratamenduari dagokionez, 2016an urte batzuk lehenago hasiak ziren iraupen luzeko zenbait proiektu bukatu dira eta, aldi berean, beste batzuk mantendu eta sendotu dira. Hedapenaren ikuspegitik, 2016. urtean dibulgazio jarduera ugari izan dira, Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak lan ildo honi emandako bultzadaren ondorioz.

Dibulgazio jarduerak 18.186 pertsonaren bisita jaso zuten. Horietako gehienak erakusketa aretoko bisitariak izan ziren. Horri gehitu behar zaio 6.522 erabiltzaile izan zirela kontsulta aretoan eta irakurketa edo liburutegi aretoan. Horrela, osotara 24.738 bisita izan ziren, estatistika hauek egiten direnetik inoiz izandako handiena.

2016ko jarduera aipagarrienak ondokoak izan dira:

## **Aldi baterako erakusketak:**

### **“1516. Errege-erreginen akabera”.**

- Datak: martxoaren 2tik ekainaren 30era.
- Erakusketak izan dituen bisitariak, guztira 6.532 izan ziren.
- Gastua, guztira, 12.089,22 eurokoa izan zen. Erakusketa laguntzeko bi lantegi, hiru hitzaldiko ziklo bat eta mahai inguru bat egin ziren ekainean. Guztira, 343 lagun bertaratu ziren.

### **“Gerra Baten Aztarna Dokumentuetan. Gerra Zibileko dokumentuak Nafarroako Artxiboan”.**

- Datak: 2017ko irailaren 15etik urtarrilaren 8ra. 2017ko martxoaren 31ra arte luzatu zen. Erakusketan parte hartu zuten bisitariak, guztira, 5.869 pertsona izan ziren, 2017ko urtarrilaren 8ra arte. Gastua, guztira, 12.731,16 eurokoa izan zen. 39 bisita gidatu egin ziren.
- Erakusketarekin batera, dokumentazioa masiboki irauli zen Artxibo Irekiko webgunera, bi lantegi ere egin ziren, bi hitzaldiko ziklo bat eta musika entzunaldi bat. Guztira 221 pertsonak hartu zuten parte.

**“Gerra Baten Aztarna Dokumentuetan. Gerra Zibileko dokumentuak Nafarroako Artxiboan” erakusketaren kariatara**, eta aintzat hartuz orduan bukatu zela Jesús García Leoz buruzko doktore tesi bat eta haren musika artxiboa Nafarroako Artxibo Nagusian gordetzen dela eta, gainera, pianorako bere lanaren zati batekin CD bat argitaratu zela baliatuz, Musikaren eguna den Santa Zezilia egunaren biharamunean ondoko musika entzunaldia egin zen: “Jesús García Leoz: gerra aurre eta ondorako musika”: Rinaldo Zhok, piano-jotzailea, Raquel Fernández Razquin, sopranoa, Laura Celaya Álvarez, Historian doktorea. Azaroak 23. 40 pertsona izan ziren.

## Mikroerakusketak:

Dokumentu funtsen ezagutza sustatzeko asmoz, mikroerakusketen ziklo berri bat hasi zen, hiru arlotan: Oroipenak (O) / Gaurkotasuna (G) / Nafarroa Ipar eta Hego (N).

- Urtarrilean: Hitzarmen ekonomikoa (1990-2015) (O).
- Otsailean: Nafarroako erresumako 1366ko suen liburua (O).
- Martxoan: XIV. mendeko bi ketubah nafar Mexiko Berrira bidean (G).
- Apirilean: Matxin Zalbakoaren eskutitza euskaraz (1416) (O).
- Maiatzean: Mudejarrak Nafarroako erresumatik kanporatzea (O).
- Irailean: Bera Nafarroako Artxibo Nagusian (N).
- Urrian: Cortes Nafarroako Artxibo Nagusian (N).
- Azaroan: Nafarroako Artxiboaren 180. urteurrena (1836-2016) (O).
- Abenduan: Florencio Ansoleaga arkitektoaren mendeurrena (1916-2016) (O).

## Katalogazioa sendotzea:

Urte batzuk lehenago hasitako lan ildoak sendotuta daude, deskribapen proiektuei dagokienez: “Fototeka” proiektua, “Errege Auzitegiak” proiektua, “Jendea” proiektua.

## Gerra Zibileko dokumentazioa:

Nafarroako Foru eta Probintzia Diputazioaren funtseko dokumentazioa tratatzeko lanak bukatzea. Horren ondorioz hainbat dibulgazio jarduera sortu dira, horien artean, aipaturiko aldi baterako erakusketa eta Artxibo Irekia web bilatzailean egindako informazio iraulketa, altxaturiko armadako nafar soldaduen 40.791 deskribapenekin eta Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegi Erregionalaren sententzien 1.538 deskribapen eta irudirekin.

## Asteazken arratsak:

Kontsulta gelako erantzun zerbitzua eta ordutegia asteazken arratsaldeetara zabaldu da.

## Lantegiak:

Europako Ondarearen Jardunaldiak direla eta, zaharberitze lantegira lau saio edo bisita praktiko egin ziren, urriaren 1ean eta 2an. 34 lagun bertaratu ziren, osotara.

## Prestakuntza jarduerak

- Erabiltzaileen prestakuntzarako VI. ikastaroa.
- Nafarroako Paleografiaren II. Lantegia.

## Topaketak:

**“Kontaiguzu zure historia” III. eta IV. topaketa.** Ikerlarien arteko topaketa, Nafarroako Artxibo Nagusiko kontsulta gelara egunero joaten direnen ikerketa gaien gaineko eztabaida eta esperientzia truke-rako gunea. Udaberrian eta udazkenean egiten da. Batez beste 30 pertsona azaldu dira saioko.

## Jarduera didaktikoak:

**Lankidetzaren hitzarmena NUPekin,** Historiaren Didaktikako masterreko ikasleak jasotzeko eta master bukaerako lana egiteko.

**Lankidetzaren hitzarmena Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatearekin,** prestakuntzan diren ikasleei harrera egiteko eta Artxibistikako Masterreko ikasleentzako prestakuntza praktikak egiteko.

**Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Unibertsitatearekin,** prestakuntzako ikasleak hartzeko eta Historiko graduako ikasleentzako prestakuntza praktikak egiteko.

**Lankidetzaren hitzarmena (AEB) William & Mary College-ekin,** ikerketa egonaldi-tako ikasleei harrera egiteko.

**Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia Departamentuekin,** dokumentazioarekin eskolak emateko Artxiboko hirugarren solairuko aretoan.

**Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Departamentuarekin,** hedapen jarduerak egiteko Zuzenbideko graduako eta Enpresetako Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitzeko Zuzenbidearen Historia irakasgaiko 1.eko ikasleekin.

**Lankidetzaren hitzarmena institutu eta ikastetxeekin:** harrera Humanitateetako Batxilergoko ikasleei eta Administrazioaren prestakuntza moduluetakoei.

## Ikastetxeek eskaturiko bisita gidatuak:

34 bisita egin ziren: 947 lagun bertaratu ziren.


## Informazio aldizkaria

*Nafarroako Errege Artxibo Nagusia Informazio aldizkariaren* 4. zenbakia argitaratu zen, 2015i dagokiona. Abuztuan argitaratu zen, 150 aleko tiradarekin. Herrerako mostradorean izan ziren, eskuragai.

## Ekitaldiak:

Artxiboko ekitaldien aretoa eta hirugarren solairuko aretoa erreserbatu egiten dira Nafarroako Foru eta Probintzia Administrazioaren unitateek edo Nafarroako Gobernuarekin loturiko bestelako entitateek antolatutako jardunaldi eta kongresuetarako. 60 ekitaldi egin ziren.

## Datak




Feb. Mar. Abril Mayo Junio Julio Agost. Sept. Oct. Nov. Dic. Enero Feb. Marzo Abril


2016

2017

## Bertaratutakoak




## Aurrekontua



## Erabiltzaileentzako arreta:

- Erabiltzaileentzako arreta pertsonalizatua eta posta elektronikoko bidezkoa.
- Kontsulta aretoa: 5.931 ikerlari bertaratu.
- Erreprodukzio baimenak: 1.648 erreprodukzio eskaera jaso ziren eta horietatik Artxiboko dokumentuak erreproduzitzeko 35 baimen eman zitzaizkien argitalpena eta erakusketetan edo webguneetan jendaurrean jartzea eskatu zuten ikerlariei.



## Kontsultak eta erreprografia:

### Ikerlariak

- Ikerlari presentzialak: Guztira: 6.552 bertaratze. 5.059 gizonezko eta 1.493 emakumezko.
- Erregistraturiko ikerlari berriak: 349, 221 gizonezko eta 128 emakumezko.

### Kontsultak guztira

- 33.136 dokumentu kontsultatu, honela banaturik:
  - 22.657 dokumentu zuzenean kontsultatuak (horietako 19.003 kanpo erabiltzaileek eta 3.654 artxiboko langileek).
  - 10.479 dokumentu digitalizatu kontsultatu ziren birtualki (horietako 6.098 kanpo erabiltzaileek eta 4.381 artxiboko langileek).

### Erreprografia

- Guztira: 44.869 kopia eman ziren, honela banaturik:
  - 39.664 kopia digital.
  - 5.205 kopia paperean.

## Liburutegia:

### Ikerlari presentzialak:

881. Horietatik 616 gizonezko eta 265 emakumezko.

### Kontsultak

- Kontsultaturiko liburuak: 1.399 ale. Horietatik 967 irakurketa gelan zuzenean hartzeko dauden liburuak dira, 57 Funtz Zaharreko aleak, 8 liburuxkak, 56 CDak eta 278 barne maileguak.
- Kontsultaturiko prentsa: 381 ale, horietatik 306 prentsa aleak dira, 42 aldizkariak eta 33 buletinak.
- Heraldikako noizbehinkako kontsultak: 46 kontsulta.

### Erreprografia

Erreprografiako 173 eskaera. Guztira 2.095 kopia izan ziren, joan den urtekoen bikoitzak, honela banatuta: 1.020 fotokopia, positibaturiko 123 mikrofilm, papereko 119 inprimatze eta 833 kopia digital.

## Ikerlariak

### Ikerlari presentzialak

Guztira: 6.552

Emakumezkoak: 1.493




Gizonezkoak: 5.059



Liburutegiko  
ikerlarien  
kontsultak: 1.399



Liburutegiko  
ikerlarien  
erreprografia:  
2.095



### Liburutegiko ikerlariak

Guztira: 881



Emakumezkoak: 265



Gizonezkoak: 616



## Kontsultak

Dokumentuak:  
33.136



Artxibozainak:  
8.035



Kontsulta  
zuzena:  
22.657



Kontsulta  
birtuala:  
10.479



Kanpoko  
erabiltzaileak:  
25.101



### Azkenaldian jasotakoak:

- Dohaintzak: 5 funts eta mapa 1.
  - Erositakoak: 2 funts eta 3 dokumentu.
  - Gordailuak: 55 instalazio-unitate.
  - Behin-behineko gordailuak: 4 dokumentu.
  - Katalogo bibliografikoa: 663 liburu eta aldizkako argitalpenetako 35 aldizkari.
- Erakusketa “Amaiur azken gaztelua - El último castillo”. Iruñeko Kondestablearen jauregia, 2016ko urriaren 28tik 2017ko urtarrilaren 20ra.
  - Iruñeko Notarioen Elkargoari entregaturiko notario protokoloak eta protokolo 1 Burlata notariotzari (Agoizko notario barrutia).
  - Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala: 8 etxebizitza proiektu.
  - Hatchwell biblia: Hatchwell bibliaren faksimilea aldi baterako Iruñea eta Tuterako Artzapezpikutzari uztea, Tuterako Dekanoaren Jauregiko Museoan erakusteko.

### Irteerak:

#### Maileguak

Artxibo historikoa denez, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren mailegu jarduera praktikan mugatzen da barrutiko artxibo notarialetatik tramitaturiko eskabideetara eta kultur hedapeneko asmoz dokumentuak kanpoan erakusteko eskabideetara.

- Ketubah erakusketa: “Fractured Faiths: Spanish Judaism, The Inquisition, and New World Identities”, 2016ko maiatzaren 20tik 2017ko otsailaren 26ra. New Mexico History Museum, Santa Fe (Mexiko berria, AEB).

### Artxiboko lanak:

Antolamendu eta deskribapen lan gehienak zenbait funtsen gaineko jarduera puntualetan zentratu dira, Artxiboko teknikariei esleituriko proiektuen bidez. Gaur egun indarrean diren proiektu artxibistiko nagusiak honako hauek dira:

**“Jendea” proiektua:** antolatzea, deskribatzea, signaturizatzea, zaharberritzea eta digitalizatzea Nafarroako Errege Kontseiluko, Erreinuko, Comptos Ganberako, Nafarroako Probintzia Kontseiluko, Nafarroako Foru eta Probintzia Diputazioko Nafarroako Erreklutamendurako Batzorde Mistoko eta Nafarroako Hautesle-eroldako Probintzia Batzordeko funtsetako serieetatik eratorritako dokumentazio estatistiko eta demografikoa.

**“Fototeka” proiektua:** Nafarroako Foru eta Probintzia Diputazioko funtsetako argazkien deskribapena.

**“Errege Auzitegiak” proiektua:** Gorte Nagusiko prozesuen deskribapena, Lorente eta Miuraren XVIII. mendeko eskribautzetakoa.

**Nafarroako Foru Diputazioa:** bildutako funtsak identifikatzea eta serieak berrantolatzea.

**Udal kontuak:** Errege Kontseiluko udal kontuen seriea antolatzea eta deskribatzea.

**Ogasuneko ordezkariak:** 2011n utzitako dokumentazioaren azterketa, datuak Archidoc aplikaziora migratzeko.

**Comptos Ganberako dokumentuak:** dokumentuak berrinstalatzea eta identifikazio akatsak zuzentzea.

**IGD:** identifikatu gabeko dokumentuak identifikatzea.

**Artxibo irekia:** aurrekoarekin lotuta, ondoriozta daiteke 2016an zehar artxibo-tratamendu integraleko proiektu nagusiek bultzada berri bat hartu zutela. Horien xedea, hein handi batean, etorkizunean Artxibo Irekian argitaratzea izanen da: “Jendea” proiektua, “Fototeka” proiektua eta “Errege Auzitegiak” proiektua.

## Dokumentuak identifikatzea eta antolatzea:

Formatu bereziko 436 kutxa eta 264 unitate identifikatu dira.

## Dokumentuen deskribapena:

23.421 deskribapen unitate deskribatu dira.



## Zaharberritzea:

Osozara zaharberrituriko dokumentuak: paperezko 4.591 orri, pergaminozko 29 dokumentu eta 649 argazki. Funts propioak eta kanpokoak

## Digitalizazioa:

- Barne plangintzako 25.438 irudi berri.
- Kanpo erabiltzaileek eskaturiko 30.522 irudi berri.

- Barne erabiltzaileek eskaturiko 616 irudi berri.
- Funts propioen digitalizazioa: 25.438 irudi (11.083 dokumentu).
- Digitalizazioa barne erakusketetarako: 292 irudi.
- Kanpo funtsen digitalizazioa: 67 irudi.
- Erabiltzaileen eskaerak: 39.538 irudi (31.138 sormen berrikoak).

Jarraian Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren Atalaren gasturik garrantzitsuenak adierazten dira. 2016an guztira 388.156 euro izan dira.

**Funtsen deskribapena eta digitalizazioa**  
168.950,00€

**Dokumentuak zaharberitzea**  
48.227,50€

**Erabiltzaileen kudeaketa**  
115.449,42€

**Kontserbazio materiala**  
8.319,02€

**Liburuak erostea**  
3.986,29€

**Prentsa harpidetzak**  
1.974,74€


**Erakusketak**  
27.086,72€

**Dokumentuak erostea**  
7.964,20 €

**Informatizazioa**  
6.198,12€



## Kontsultak eta maileguak, jardueraren arabera



### 1. Herritarrei zerbitzu ematea, Artxiboaren leloa

Kontsultak laukoiztu egin dira zerbitzuko azken 10 urteotan. 2016an 7.258 kontsulta tramitatu ziren; hau da, laneko ordu bakoitzean 6 kontsulta. Nabarmendu behar da kontsulta bakoitzaren atzean, oro har, informazioa behar duen herritarra dagoela. Hortik dator gure leloa: **HERRITARREI ARRETA EMAN.**

### 2. Herritarra, kanpoko kontsulten protagonista

Kanpoko kontsultak aipatzean, artxiboetara jotzen duen ikertzailea etortzen da normalean gogora. Gure kasuan herritarrak dira, pertsona interesdun gisa, kontsulta gehienak egiten dituztenak.

### 3. Generoa aipatzen badugu, emakumeak nagusi dira barneko kontsultetan eta gizonak, kanpoko kontsultetan

Kontsulta-eskaera kudeaketa bulegotik tramitatzen den kasuetan, %59an emakume batek egiten du, eta, aldiz, interesduna zuzenean badator Artxiboa ikustera, %78an gizona da

## 4. Irudi digitala gailendu da

Zalantzarik gabe, irudi digitalak fotokopiarren lekua hartu du erreprografia prozesuan eta barneko eta kanpoko erabiltzaileei emandako kopietan. 5 urtean, irudi digitalen kopurua 2.522tik 61.596ra igaro da, eta egun Artxiboaren jardura nagusietako bat da.

## 5. Industria, Etxebizitza eta Zerga Kudeaketa, eskatuena

Dokumentazioa eskatzeari dagokionez, oso argia da kontsulten grafikoa, Administrazioaren funtzioen araberakoa. Eskaera kopuruen arabera, hauek gailentzen dira: Industria, Zerga Kudeaketa, Etxebizitza, Herri Lanak, Ingurumenaren Babesa, eta gainerakoak

## 6. Deskripzio hoberekin kontsulta gehiago

Deskripzioak hobetzeak ekarri du bilaketak optimizatzea eta kontsulta gehiago izatea. Baina aurkako prozesua ere jorratzen da: kontsulta eskaera asko izan ditzakeen dokumentazioaren deskripzioak hobetzen dira. Iaz 23.000 espediente katalogatu ziren.

## 7. Gurekiko konfiantza handitu da. “Bidali zure dokumentuak, gu ardurtuko gara”

Bezeroari arreta egokia ematea da, zalantzarik gabe, argudiorik hoberena gure zerbitzua eraginkorra dela frogatzeko. Halatan, kontsulta gehien eskatzen duten unitateak dira, orobat, Artxibora dokumentazio gehien bidaltzen dutenak. 2016an 9.513 kutxa jaso ziren, eta guztira 272.537 unitate daude gure zaintzapean.

## 8. Kontserbatu, ikertu ahal izateko

Zaintzen den dokumentazioak eragin administratiboa du, herritarren eta administrazioaren eskubideak eta betebeharrak bermatzen ditu. Gainera, prozedurak aztertzen ditugu, hautemateko zeintzuk diren interesgarriak ikerketa zientifiko, kultural edo historikorako, eta konpromisoa hartzen dugu haiek betirako kontserbatzeko.

Deuseztatzea, kontserbatzeko. Bestela esanda, balio ez duena kendu, balio duenaz ardurtzeko. Konfidentziasuna bermatuta dagoela. Azken 10 urte honetan, artxiboko 116.000 kutxa deuseztatu dira, dokumentazio aktibo gehiago hartu ahal izateko.

## 9. Artxibo Irekia, dokumentazioa hedatzen duen erakusleihoa

Artxibo Irekiak ahalbidetzen du libreki eskuratzen ahal den dokumentazioa webgunean kontsultatzea. Aurten lehentasuna eman zaio “Zinema Aretoa” proiektuari, baina Alorren Mapak ere igo dira, Lur-ondasunen sailetik hartuak.

## 10. Erronka handia

Agiri elektronikoak jaso, kontserbatu eta erakustea. Abian da artxibo digitalaren proiektua.



# Museoak



## Lankidetzan egindako jarduerak

- Boluntarioak: bisitaldi gidatuak.
- Nafarroako Museoaren Adiskideen Elkarte.
- Erdi Aroko Kulturaren III. kurtsoa, martxoan.
- Zuzenetik marrazteko lantegia, uztailean, helduendako.
- Haurtxoentzako kontzertua, urriaren 30ean.
- Hitzarmenak Nafarroako unibertsitateekin (NU, NUP eta UHUN) eta EHUko Letren fakultatearekin, ikasleek arauturiko praktikak egin ditzaten:

## Bilduma

### Dohaintzan hartutako pieza berriak:

- *Tertulia*, Julio Martín-Caro autorearena.
- *Caricatura de Julio Martín-Caro*, Eduardo Robles Piquer-ena.

### Maileguak:

- Armadura garaikidea, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian egin zen “Errege-erreginen akabera” aldi baterako erakusketarako.
- Jacob Bouttats-en *Separación de la tierra y los mares* eta *Creación de los peces y las aves* kobre gaineko lanak Las Edades del Hombre Fundazioari utzi zitzaizkion, Toron (Zamora) egin zen “Las Edades del Hombre”-ren XXII. ediziorako.
- Abaunzko maparen erreplika Jorge Oteiza Museo Fundazioari utzi zitzaion, “1513. Urtubiko bake akordioetatik abiatuz. Geografia eta Paisaia” aldi baterako erakusketarako.
- Jesús Basianoren lau obra, *Playa de la Rochapea*, *Casa Estremera*, *Retrado del Sr. Amichis* eta *Figuras*, Iruñeko Udalak antolaturiko “Jesús Basiano” erakusketa antologikoan.

### Gordailuak:

“César Muñoz Sola” pintura bilduma Tuterako Arte Modernoaren Muñoz Sola Museoan gordailutu zen.

### Domus programako bildumen katalogazioa:

Domus museoetako bildumen kudeaketa integraleko aplikazio informatiko bat da, Kultura Ministerioak garaturikoa, helburu bikoitz batekin: bildumak kudeatzea eta jendaurreko hedapena erraztea.

2016 bukaerarako Domusen 566 fitxa sartuak zeuden.

### CER.ES sareko bildumen plataforma:

2016an Nafarroako Museoko erakusketa iraunkorreko 242 fitxa sartu ziren. 2016ko abenduan *online* zeuden, jendeak libreki kontsultatzeko ([ceres.mcu.es](http://ceres.mcu.es)).

### Didaktika eta komunikazio

Eskaintza didaktikoa eta parte-hartzaile kopurua:

- Lantegi didaktikoak: 5.961.
- Bisitaldi antzeztuak: 1.477.
- Bisitaldi gidatuak: 1.581.
- Ibilbideak, koadernotxoan laguntzarekin: 387.

Jarduera guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaini dira.

Beste lantegi batzuk:

- Eguberrietako, Aste Santuko eta udako opor aldietarako haur lantegiak. 70 parte-hartzaile, osotara.
- "Olio autoerreturatua" helduendako bi lantegi egin dira. 27 pertsona inskribatu dira.

### Erakusketak

Nafarroako Museoak aldi baterako erakusketetako programazioa irizpide orokor batzuetan oinarritzen du. Horien helburua da museoeko bildumen esparruari erantzutea, sakontasuna ematea, ezagutzera ematea eta balioa ematea. Hori gaurkotasuneko gaiak ahaztu gabe, Iruñeko beste gune artistiko batzuekiko koordinazioa sustatuz eta foru titulartasuneko beste museo batzuekin lankidetzan.

2016an zehar, Nafarroako Museora 39.716 bisitari eta erabiltzaile hurreratu ziren.

#### Jarduerak erakusketa iraunkorrean:

- XVI. mendeko polikromiaren eta gizonen erretratuen gaineko "ibilbideak" aurkeztea.
- Leireko kutxatilararen eta Iruñeko katedralaren gaineko bi ikus-entzunezko gehitzea.
- Museoeko barne seinaleetika berritzea, errotulazio hiru eledunarekin (gaztelania, euskara, ingelesa).
- Historiaurreko aretoa berrirekitzea, Turbilgo hilarria gehituta.
- Hiriko horma-irudia, Nafarroako Museoeko fatxadan.



#### Aldi baterako erakusketak erakusketen aretoan:

- "Laca Namban. Japoniako distira Nafarroan".
- "Immateriala. Ondarea eta memoria kolektiboa".
- "Artea eta paisaia". Nafarroako Museoa Bertizen.
- "Hausnarketa / Inflexioa: emakumeen presentzia Nafarroako Museoa".

#### Mikroerakusketak laugarren solairuan:

- "Ezequiel Endériz-en erretratua", Fructuoso Orduna eskultorearena.
- "Euskaldunak 8 bariazio", Elena Asinsena.
- "Karratu beltza lur gorriaren gainean", Ángel Garrazarena.
- "Urruna", Vicky Méndizena, Mapamundistas 2016-ren baitan.

## Kultur jarduerak

### Astearteetan Museoan:

Astearteetan Museoan 2012an sortu zen, sustatzeko Nafarroako Museoari, ondare kulturalari eta ondarea zaintzeko eta hedatzeko egiten diren jarduerari bereziki loturiko gaien hedapena. Horregatik, gaiak askotarikoak dira: artea, historia, zaintza eta zaharberritzea. Halaber, formatua askotarikoa da: hitzaldiak, mahai inguruak, topaketak arte sortzaileekin eta kultura ondarearen protagonistekin, bisita gidatuak, lantegiak, etab.

### Kontzertuak:

Ganbera musika, ahots-musika, musika garaikidea.

### Lankidetzak:

- COARNA, Nafarroako Artisten Kooperatiba.
- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa.
- Nafarroako Museoak ekitaldien aretoa uzten die beste departamentu eta entitate batzuei kultura eta hezkuntza jarduerak egiteko.



## Ikerlariei arreta ematea

2016an zehar 46 pertsonak jo zuten Nafarroako Museora, askotariko eskaerekin. Horietako seik piezen, erakusketako elementuen eta artisten gaineko informazioa eskatu zuten. Eskatzaileetako bost Nafarroako Museora etorri ziren historiaurreko piezen berariazko irudiak hartzeko edo filmatzeko.

Eskaera ohikoena da irudiak igortzea argitaratzeko, hedatzeko edo ikertzeko. 2016an 134 irudi igorri ziren, doan.

## Liburutegi espezializatua

Liburutegia kontsulta publikokoa izaten da ostegunean, 9:00etatik 14:00etara.

Urtean zehar, liburutegiak Museoan egindako aldi baterako erakusketetan kolaboratu du, liburutegiko funtsak eta horiekin loturiko Nafarroako artisten dokumentu funtsak gidarien edo jendearen eskura utziz. Nafarroako Museoa apirilaren


23an hasi zen *Bookcrossing*-ean, eta liburutegiak horretan ere kolaboratu du.

Aipamen berezi bat egin behar zaio "Hausnarketa/Inflexioa" erakusketari. Erakusketa horretarako 46 lan eskuratu ziren eta bibliografia zehatz bat egin zen erakusketako gaiaren gainean liburutegian diren obra guztiekin.

Lan berri gehienak argitalpen espezializatuen trukeen edo dohaintzen ondorio dira.

Katalogoan sartutako lan berriak: 402.

## Nafarroako museoa. Eskaintza didaktikoa eta parte-hartzaile kopurua.



2016ko abenduaren 31n, inbentariaturiko piezak osotara 993 dira.

## Kultur ondasunak eskuratzea

### Dohaintzak:

12 dohaintza tramitatu dira, guztiak ere Nafarroakoak:

Argazki positiboen serie bat, erabilera eskubiderik gabekoa:

- Paperean inprimaturiko 10 fotomuntaketa digital.
- 22 positibo paperean.
- 13 positibo paperean.

### Gordailuak:

- “San Kristobal gotorlekuko maketa”.

### Erosketak:

- Kartoizko intsignia karlista.

## Zigor arloko betearazpen prozedura bidez jasotakoa:

- “Mauser bayoneta (Toledo, 1896)”.

## Eskurapenak

2016an zehar 99 pieza berri edo dokumentu multzo erregistratu dira.

## Liburutegia eta dokumentazio zentroa

Karlismoaren Museoko Dokumentazio Zentroko liburutegiak funtsak handitu ditu, ondokoen bidez:

- Erosketak: 38 liburu eta aldizkari 1.
- Dohaintzak: 36 liburu.
- Nafarroako Gobernuaren argitalpenak: 2 liburu.
- Erakundeen opariak: 41 liburu eta aldizkari 1.
- Egile opariak: 5 liburu eta 2 separata.

## Ikerketa programa

### Egindako proiektuak

- 2015ean Karlismoari buruzko ikerketa egiteko emandako laguntzaren argitalpena.
- Aldi baterako erakusketaren katalogoak: web edizioa eta edizio inprimatua.

### Kontserbazioa-zaharberitzea

2016an Karlismoaren Museoaren bildumako hiru objektuekin esku hartu zen:

Objektua

- Kartutxo uhala (inbentario zenbakia: 850)
- Buru babesa (inbentario zenbakia: 879)
- Mauser modeloko fusilerako baioneta (inbentario zenbakia: 888)

## Ondasun kultural higigarrien maileguak

Donostia 2016 Fundazioak sustaturiko Kulturaren Europako Kapitalaren Proiektuaren kariatara, Karlismoaren Museoari eskatu zitzaion bere jabetzako “Bergarako besarkada” dioramako zenbait pieza lagatzea, komisarioa Pedro G. Romero izan duen “Bake-ituna” programaren barneko “1839. Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa” erakusketako parte izan zitezten.

## Erakusketa iraunkorreko programa

Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorrean osotara 91 pieza museografiko daude ikusgai:

### Ikusleak

Bisitariak: 9.563.

Erabiltzaileak: 3.263.

### Jarduerak

Aldi baterako erakusketak

- “Hiria errenditzea. Karliten Iruñeko blokeoa (1874ko iraila - 1875eko otsaila)”, 2015eko maiatzaren 14tik 2016ko apirilaren 3ra.
- Bisita gidatuak erakusketetara. 34 bisitari.
- Haurrentzako lantegia “Banderan hizkuntza”.
- “Iraganari so. Birsortze historikoko argazkiak eta gerra karlistak”, 2016ko maiatzaren 16tik urriaren 23ra.
- “Jurramendi. Mendi sakratua”, 2016ko azaroaren 29tik 2017ko maiatzaren 7ra.

Erakusketako komisario Manuel Martorellek gidaturiko bisita: 37 pertsona, osotara

Lantegiak:

- *Ferrotipoen lantegia, Jabier Sotoren eskutik.* Maiatzaren 21ean egin zen Museoen Nazioarteko Egunaren kariatara. 8 parte-hartzaile izan ziren.
- *Fotomuntaketa digitala egiteko prozesuari buruzko saio magistrala, Jordi Bruren eskutik.* Urriaren 15ean egin zen, Lizarrako Udalak eta Lizarraldeko Argazki Elkarteak antolatutako Photo Urria 2016 ekimenaren baitan. 19 parte-hartzaile izan ziren.

## Hezkuntza eta kultura jarduerak

Bisita gidatuak erakusketa iraunkorrera (gaztelania eta euskara). Osotara 58 bisita gidatu. Horietan 390 bisitari izan dira.

“Dekora ezazu zure kuxina” haur lantegia, bi saio, abenduaren 23an eta 30ean. Guztira 29 parte-hartzaile izan dira.

Ikastetxeentzako eskaintza didaktikoa eta lantegiak (gaztelania eta euskara).

Hezkuntza eskaintza hau “Nafarroa. Lurralde sortzailea, lurralde hezitzailea” izeneko programaren baitan kokatzen da. Programa Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak sustatu du. Zehazki, ondoko jarduerak eskaini ziren:

- “Kasakatxo, lebita, berokia... gudurako jantziak”, Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloko ikasleei zuzenduriko jarduera (10-12 urte).
- “Paperezko abenturak. Soldadu liberal eta karlistak” jarduera, DBHko ikasleei zuzendua (12-16 urte).
- “Emakumeak eta karlismoa” jarduera, DBHko ikasleei zuzendua (12-16 urte).
- Bisita gidatua museoko erakusketa iraunkorrera, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendua.

Jarduera hau euskaraz eta gaztelaniaz eskaini zen.

2016. urtean 272 ikaslek eta 17 irakaslek hartu zuten parte.

## Karlismoaren museoa. Bisitak eta bertaratutako pertsonak.


Bisita gidatuak  
aldi baterako  
erakusketera:  
Bisitak: 58  
Bertaratutako  
pertsonak: 390



Bisita gidatuak  
aldi baterako  
erakusketera:  
Bisitak: 4  
Bertaratutako  
pertsonak: 272



Bisita  
gidatuak aldi  
baterako  
erakusketera:  
Bisitak: 2  
Bertaratutako  
pertsonak: 71



### Proiektuaren egoera

Museoa 1994an sortu zen eta 2016an 22 urte bete ditu.

### Aurrekontua

Museo Etnologikoaren funtzionamendu, jarduera eta inbertsio aurrekontua 2016an 298.775,40 eurokoa izan da.

### Funts etnografikoak

Museoko bildumak 29 pieza berri eskuratuta aberastu dira. Ia gehienak partikularrek egindako dohaintzak izan dira.

2016. urte honetako sarrera berriekin, Museo Etnologikoko bildumak 15.023 pieza ditu osotara. Horietako 25 inbentarioan sartzeko zain daude.

### Piezen mailegua

- Karlismoaren Museoaren “Hiria errenditzea. Karlisten Iruñeko blokeoa (1874ko iraila - 1875eko otsaila)” aldi baterako erakusketarako.



- 3 panel, Lizaingo Elizar Kultur Etxean 2016ko martxoaren 1etik urriaren 10era erakusgai izan zen aldi baterako erakusketarako. Lizaoin-Arriasgoitiko Udalak antolatu zuen erakusketa.

### Dohaintzak

Museoko liburutegi espezializaturako 225 ale eman ziren dohaintzan (221 titulu eta 4 bikoiztu).

### Jarduerak

Liburuaren egunean (apirilaren 23a) egin zen bookcrossingean parte hartzea.

### Ondare etnografiko immaterialaren dokumentazioa

Pyrene P.V. ekoiztetxearekin “Artaxoako ezkil jotzaileak” izeneko dokumental etnografikoa errealizatzea eta ekoiztea.

### Bestelako jarduerak

Hiru bisita gidatu euskaraz eta gaztelaniaz:

#### Eguna

- **Urriaren 1a, larunbata** (arratsaldeko ordutegia eta euskaraz)

👤 1

- **Urriaren 2a, igandea** (goizeko ordutegia eta gaztelaniaz)

👤 9

- **Azaroaren 19a, larunbata** (goizeko ordutegia eta gaztelaniaz)

👤 20


- **2016an bertaratuak, guztira**

👤 30


## Ikusitako orriak: 6.448

Museo etnologikoko webguneak izandako sarreraren erkaketa 2015-2016. Datuak eta grafika


### Bisitak:





### Usuarios:



### Orrialdeak:





## **Iratxeko Monasterioa**

Iratxeko monasterioak 33.407 bisitari izan ditu 2016an. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino %21,74 gehiago izan direla.

## **Andre Maria** **Gaztelupekoaren Eliza**

Ekipamendu honen bisita publikoa Lizarrako Done Jakue Bidearen Lagunen Elkartearekin egindako hitzarmen bidez kudeatzen da.



Helburua da Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko 10/2009 Foru Legeak aitorturiko eta Foru Komunitateko Administrazioarenak ez diren Nafarroako museoetako eta bilduma museografiko iraunkorretako gastuak finantzatzea.

2016an, laguntza hauek zortzi ekipamenduk izan dituzte:

- Museoak (4): Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Gustavo de Maeztu Museoa, Arte Modernoaren Muñoz Sola Museoa eta Tuterako Museoa.
- Bilduma museografiko iraunkorrak (4): Zubietako Errota ekomuseoa, Tulebrasko Monasterioko Museoa, Julian Gaiarre Museo Etxea, Las Eretas Museo eta Aztarnategi Arkeologikoa.

### 1. taula: Nafarroako Museo eta Bilduma Museografiko Iraunkorretarako laguntzak

Norgehiagokako laguntzak	Partidaren zenbatekoa	Esleitutako zenbatekoa
<b>Museo eta Bilduma Museografiko Iraunkorren funtzionamendurako laguntza deialdia</b>	<b>40.000 €</b>	<b>37.355 €</b>
<b>Museoetan eta bilduma museografiko iraunkorretan zabalkunderako jardura eta ekintzetarako laguntzen deialdia</b>	<b>15.000 €</b>	<b>10.220 €</b>
<b>Norgehiagokako laguntzen zenbatekoa</b>	<b>55.000 €</b>	<b>47.575 €</b>
Laguntza izendunak	Partidaren zenbatekoa	Esleitutako zenbatekoa
<b>Jorge Oteiza Fundazio Museoa (Altzuza)</b> Hitzarmena, funtzionamendu eta jardura gastuak finantzatzeko	<b>823.790 €</b>	<b>823.790 €</b>
<b>Jorge Oteiza Fundazio Museoa (Altzuza)</b> Hitzarmena, inbertsio gastuak finantzatzeko	<b>8.000 €</b>	<b>8.000 €</b>
<b>Gustavo de Maeztu Museoa (Lizarra)</b> Hitzarmena, funtzionamendu gastuak finantzatzeko	<b>10.000 €</b>	<b>10.000 €</b>
<b>Arte Modernoaren Muñoz Sola Museoa (Tutera)</b> Hitzarmena, funtzionamendu gastuak finantzatzeko	<b>10.000 €</b>	<b>10.000 €</b>
<b>Julian Gaiarre Museo Etxea (Erronkari)</b> Hitzarmena, funtzionamendu gastuak finantzatzeko	<b>14.000 €</b>	<b>14.000 €</b>
<b>Julian Gaiarre Museo Etxea (Erronkari)</b> Hitzarmena, inbertsio gastuak finantzatzeko	<b>10.000 €</b>	<b>10.000 €</b>
<b>Laguntza izendunen zenbatekoa</b>	<b>875.790 €</b>	<b>875.790 €</b>
<b>LAGUNTZAK, GUZTIRA</b>	<b>930.790 €</b>	<b>923.365 €</b>

### 2. taula: Laguntzak, ekipamendu motaren eta laguntza motaren arabera

Ekipamendu mota	Laguntza mota			Zenbatekoa
	Funtzionamendua	Inbertsioak	Jarduerak	
<b>Museoa</b>				
Jorge Oteiza Fundazio Museoa	823.790 €	8.000 €		831.790 €
Gustavo de Maeztu Museoa	10.000 €		4.291 €	14.291 €
Muñoz Sola Museoa	10.000 €			10.000 €
Tuterako Museoa	10.355 €		2.706 €	13.061 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>854.145 €</b>	<b>8.000 €</b>	<b>6.997 €</b>	<b>869.142 €</b>
<b>BILDUMA MUSEOGRAFIKO IRAUNKORRAK</b>				
Julian Gaiarre Museo etxea	14.000 €	10.000 €		24.000 €
Tulebrasko Monasterioko Museoa	9.000 €			9.000 €
Las Eretas Museo eta Aztarnategi Arkeologikoa	9.000 €		2.673 €	11.673 €
Zubietako Errota Ekomuseoa	9.000 €		551 €	9.551 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.000 €</b>	<b>10.000 €</b>	<b>3.224 €</b>	<b>54.224 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>895.145 €</b>	<b>18.000 €</b>	<b>10.220 €</b>	<b>923.366 €</b>




**Nafarroako Museoak erkidegoko zentrorik bisitatuena izaten jarraitzen du, 39.661 pertsonak bisitatu baitzuten.**

**2016an, bisitariaren profila izan da Nafarroan egoitza duten pertsonak (%44,52), bisita banaka egiten dutenak (%68,21), goizeko ordutegian (%77,5) eta doako sarrerarekin (%74,1). Bisitari gehien larunbatetan izaten da.**

**Bisitari gehienak Espainiakoak dira, Nafarroa, EAE, Madril eta Kataluniako erkidegoetakoak. Atzerritarrei dagokienez, frantziarrak dira nagusi.**

## 4. taula. Museoetako eta Bilduma Museografiko Iraunkorretako bisitarien datuen



Museoen Zerbitzuak arlo honetan ondoko jarduketak izan ditu:

- Ondare Kultural Immaterialaren Inbentarioaren Plan Zuzentzailea prestatzea. Bertan, besteak beste, ondare kultural immaterialaren inbentaria egiteko balorazio irizpideak eta laneko metodologia ezarri dira. Museoen Zerbitzuak aholkularitza teknikoa kontratatu zuen plana egiteko.


Plan zuzentzaile hau Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 376/2016 Ebazpenaren bidez onetsi da.

- “Nafarroan Ondare kultural immaterialaren inbentaria prestatzeko dokumentazioa aztertzea, ikertzea eta landa lana egitea” proiektuko I. fasearen balidazioa. Ondare Kultural Immateriala Babesteko Plan Nazionala arduratu da tramitazio administratiboaz eta proiektu hau finantzatzeaz.

Proiektua 2017an bukatuko da.



# Baliabideen eta garapen estrategikoaren atala



### Barandiaran Fundazioarekiko hitzarmena

José Miguel de Barandiaran Fundazioarekin sinaturiko hitzarmenaren xedea da on Jose Migel Barandiaranek hasitako ikerketa lana bultzatzea, Historiaurrea, Arkeologia, Antropologia eta Etnologia diziplinetan. Hitzarmenak 3.000 euroko zenbatekoa izan zuen eta Jose Migel Barandiaranen heriotzaren 25. urteurreneko jardueren finantzazioa ekonomikoki laguntzera bideratuta zegoen.

### Parte-hartze plana

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak lehentasunezko ildotzat du bere kultur politikan herritarren partaidetza, gakoa baita proiektuak lurraldearekin eta herritarrarekin bat eginik garatzeko; horrenbestez, beharrezkoa da partaidetza prozesuak abiaraztea, XXI. mendeko herritarraren eta kultur eta arte sektoreen premia eta eskaeren araberakoak. Xede horrekin, 2016an Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren lehen parte-hartze prozesua egin zen.

Apirilaren 19an urte guztian zehar gauzatuko zen Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 2016-2019 Planari loturiko parte-hartze prozesuaren aurkezpen jardunaldia egin zen. Prozesuaren xedeak ondokoak izan ziren: herritarrak informatzea eta inplikatzeko diskurtso kulturalaren eraikuntzan eta eduki parte-hartzaile handiko politika kulturala sustatzea eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea. Planaren faseak honela ezarri ziren: informazio eta kontsulta fasea, deliberazio fasea, jendaurrean paratzeko fasea eta itzulerako saioa. Informazio eta kontsulta fasean 7 saio sektorialak egin ziren, maiatz-ekainetan. 192 pertsonak eman zuten izena eta 180 ekarpen izan ziren, ondoko gaietakoak: Museoak, Artxiboak, Ondarea, Liburutegiak, Ikus-entzunezkoen eta Zinemagintzaren sektorea, Musika eta Arte Eszenikoak. Lehen fase hau eskualde mailako foroekin osatu zen. Horietan 161 pertsonak eman zuten izena eta 168 ekarpen izan ziren. Foroak honako tokietan egin ziren: Tuteran, Tafalla, Lizarra, Iruña, Doneztebe, Altsasu, Zangoza.

Parte-hartze prozesuaren bigarren fasea deliberazio fasea izan zen. Fase honetan parte-hartze fase zehatzago bat eman zen, Nafarroako politika kulturalerako garrantzi bereziko gai multzo batean oinarrituta. Deliberazio saioetan aztertutako gaiak ondokoak izan ziren: irisgarritasuna eta ikusgarritasuna, araudia: Mezenasgoaren legea eta Kulturarako eskubidearen legea, plangintza eta kudeaketa, araudia: sektore mailako legeak. Saioak urrian eta azaroan egin ziren. 101 pertsonak eman zuten izena eta 213 ekarpen izan ziren. Behin deliberazio fasea bukatuta, Planaren zirriborroa jendaurrean paratzeko fasean sartu zen. Hartan eta Gobernu irekiko webgunearen bidez, ekarpenak egiten jarraitu ahal izan zen.

Kontsulta fasea bukatu ondoren, zerbitzu bakoitzak banakako erantzuna eman zien ekarpenei, ondoko emaitzarekin:

	Guztira	Museoak / ondarea	Araudia	Liburu-tegiak	Artxiboak	Ikus-entzuzkoak eta zinemagintza	Vianako printzea erakunde-kultura zuzendaritza nagusia
<b>Etsiak</b>	<b>69%</b>	<b>54%</b>	<b>67%</b>	<b>96%</b>	<b>82%</b>	<b>43%</b>	<b>76%</b>
<b>Aintzat hartuak</b>	<b>6%</b>	<b>3%</b>	<b>33%</b>			<b>4%</b>	<b>7%</b>
<b>Ezarriak</b>	<b>6%</b>	<b>10%</b>				<b>16%</b>	<b>2%</b>
<b>Aztertutak</b>	<b>20%</b>	<b>32%</b>		<b>4%</b>	<b>18%</b>	<b>36%</b>	<b>15%</b>



Sortutako dokumentazio guztia Gobernu Irekian paratu da (ekarpenen erantzunak barne), euskaraz eta gaztelaniaz. <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/vianako-printzea-erakunde-kultura>

199/2015 Foru Dekretuak, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena, kulturako argitalpenei bide ematen die. 2016an egindako Argitalpenen Planak ezarritako helburuen artean ondokoak daude:

- Lan ildo berriak ezartzea ondoko urteetarako.
- Balio berrien eragina: garaikidetasuna eta tradizioa, hobekuntzak berdintasunean eta parte-hartze zabala.
- Hautatze irizpide berriak eta barne funtzionamendurako protokoloa.
- Orain arte landu gabeko gaietara irekitzea.
- Aldizkariak berritzea. Idazketa, zuzentze, diseinu eta eduki mailako aholkuak.
- Lau aldizkarietan kalitateari begirako irizpiderik zorrotzenak betetzea.

Ildo editorial berriak batez ere testuen kalitatea eta argitaratze prozeduren kalitatea bermatu nahi ditu. Vianako Printzea Erakundearen ezaugarri izan diren edukiekin jarraitzen bada ere (historia, artea, artearen historia, etnologia eta etnografia, arkeologia, ondarea, bibliografia, filologia, literaturaren historia), gai esparru berriei bide eman nahi zaie, tokia egiteko gaur egunekoagoak diren alderdiei: soziologia, antropologia, zinema, antzerkia, musika, dantza, sormen industriak, museoak, arte garaikidea. Bereziki zainduko dira euskarazko edukiak.

2016an zehar Vianako Printzea Erakundearen lau aldizkarietako zuzendaritzak eta erredakzio kontseiluak berritu ziren, barne eta kanpo diseinuak ere berritu ziren eta Latindex, Scopus eta Redalyc-en kalitate irizpideak betetze bidean lan egiten hasi zen.

## 2015eko azken hiru hilekoan argitaraturikoa

2015 bukaeran, aurreko Nafarroako Kultura Kontseiluaren eta berriaren izendapenaren artean geunden. Urte bukaeran ondoko liburu eta aldizkariak argitaratu ziren:

- *Crónica del convento de capuchinos Extramuros de Pamplona*. Kaputxino Anaia Txikien Ordena.
- *Violencia y conflictividad comunitaria en la Navarra de la Edad Moderna*. Javier Ruiz Astiz.
- *El arte gótico en Navarra*. Clara Fernández-Ladreda Aguadé (zuz.) eta beste.
- *Gremios artísticos en Pamplona durante los siglos del Barroco*. Eduardo Morales Solchaga.
- *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkaria, 89. zenbakia (euskaraz)
- *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta* aldizkaria, 120. zenbakia (euskaraz)
- *Príncipe de Viana* aldizkaria, 263. zenbakia.

### 2016an argitaraturikoa

- Uharte zentroko Arte Plastiko eta bisualetako 2015eko proiekturako laguntzen erakustetako katalogoa.
- *XLII Semana de Estudios Medievales de Estella-Lizarra. Discurso, memoria y representación. La nobleza peninsular en la Baja Edad Media, 21-24 de julio de 2015.* Hainbat egile (Nafarroako Artxibo Nagusiko argitalpena). Online edizioa.
- *Literatur Sorkuntzaren 2015eko Saria: Sinfonía fernandina. Dos figuras en la sombra del reinado de Fernando VI.* José Luis Sola Gutiérrez.
- *Navarra. Música.* María Gembero (2017an aurkeztua).
- *El arte románico en Navarra.* Clara Fernández-Ladreda Aguadé (zuz.) eta beste. Online edizioa.
- *El espíritu ilustrado en Navarra: la Real Sociedad Tudelana de los Deseosos del Bien Público.* Pablo Guijarro Salvador.
- *Cartulario Magno del Archivo Real y General de Navarra.* Eloísa Ramírez Vaquero (zuz.) eta beste, «Corpus Documental para la Historia del Reino de Navarra. Códices y Cartularios» bilduma, III. tomoa (Nafarroako Artxibo Nagusiko eta Erriberri eta Lizarrako udal artxiboetako dokumentazioa), argitalpen digitala eta paperezko edizio murriztua. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera editatua.

- *Los Templarios en Cintruénigo. Contribución al estudio de la Orden del Temple en el Reino de Navarra (siglo XII).* Salvador Remírez Vallejo.
- *Trabajos de Arqueología Navarra aldizkaria*, 26. eta 27. zenbakiak.
- *Príncipe de Viana aldizkaria*, 264. zenbakia. Monografikoa Joxemiel Bidadorren artikuluekin (euskaraz).
- *Príncipe de Viana aldizkaria*, 265. zenbakia.
- *Fontes Lingvae Vasconvm*, 121. zenbakia (euskaraz).

### Ediziorako laguntzak



Deialdiak haxe zuen helburu: diru-laguntzak ematea 2016an argitaratzeko liburuak eta aldizkariak, bai ohiko euskarrian (papera) bai euskarri magnetiko edo informatikoan (CD, DVD, multimedia, etab.), edo argitalpen diskografikoak, betiere edukiak artearen, kulturaren edo zientziaren gainekoak baziren. Parte hartzea izan zuten bai irabazi asmorik gabeko entitateek sustaturiko edizioek, bai enpresa eta entitateek egindakoek.

7 argitalpen lagundu ziren diruz:  
3 aldizkari, 3 liburu eta argitalpen diskografiko bat. Osotara, 11.152,10 €.

### Komunikazio plana: Culturana Navarra.es

2016an culturana Navarra.es webgunea eguneratu zen, tokia eginez Kultura Zuzendaritza Nagusiko bost zerbitzuei. Halaber, koordinazio mekanismo bat ezarri zen, herritarrei ezagutzera emateko ondareari buruzko, ekintza kulturalako, museoetako, liburutegietako eta artxiboetako programak, beren osotasunean.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko fatxadan ere Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko bost zerbitzuetako banderola eguneratuak paratu ziren.



Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak, bere helburuen artean du Nafarroako artearen eta kulturaren esparruko sortzaile eta profesionaleri laguntza ematea eta beren gaitasunak indartzea, hazi eta lan munduan finka daitezzen.

Xede horri eta gaur egungo abagune ekonomikoan dauden aldaketa iraunkorrei zein ikerketen bidez edo sektorearekin izandako harreman zuzenen bidez atzeman diren premiei erantzunez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak prestakuntza plan bat egin zuen 2016rako. Plan horrek 2014an hasitakoari jarraipena eman zion.

Gaitasun profesionalak hobetzea hazkundea eta egonkortasuna laguntzeko oinarritzko elementu bat da, horren aldakorra den lan egoera batean.

Prestakuntza Planak aukera eman zuen trebetasunak, abileziak eta ezagutzak eskuratzeko. Baina horrez gain, sektoreko beste profesionalekin esperientziak trukatzeko eta sareak osatzeko ere lagunduko du.

Guztira 250 lagunek eman zuten izena.

Hilabetea	Izenburua	Irakaslea
Maiatza	1. "Ley de mecenazgo cultural: orientaciones prácticas" jardunaldia.	Juan Carlos Orenes eta M. <sup>a</sup> Camino Barcenilla
	2. "Obtener mecenas con el sello MECNA" lantegia, Iruñean.	Sara Rubio Rimada eta Luis García Díez
Iraila	3. "Ley de mecenazgo cultural: orientaciones prácticas" jardunaldia.	Juan Carlos Orenes eta M. <sup>a</sup> Camino Barcenilla
Urria	4. "Del patrocinio al crowdfunding. Nuevos y viejos modelos de relación, organización y financiación para la innovación en cultura" lantegia.	Roberto Gómez de la Iglesia eta Rosa Fernández
Azaro	5. Cultura abierta y derechos de autor. Procomún vs propiedad intelectual.	Juan Manuel de Faramiñán

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez da soilik justizia kontu bat, emakumeen eskubideak giza eskubide gisa aitortzen eta errespetatzen direlako. Aitortza eta gizareratze kontu bat ere bada: aitortza, berarekin dakarrelako kontuan izatea gure gizartea emakumeek eta gizonen maila berean osatzen dugula; gizareratzea, printzipio orokor hori esparru eta eremu guztietan aplikatu beharrekoa delako, gizarte egiturari berari eragiten diolako.

Soilik horrela izanen dugu gizarte moderno bat, gizarte iraunkortasuneko irizpidearekin bat, eta administrazio eraginkor bat, hain zuzen ere, herritarren ezaugarri eta eskaera berariazkoei erantzutean, gizartea osatzen duten pertsona guztiendako bere ondorioak eta onurak ekarriko dituena.

Horretarako, nahitaezkoa da berdintasun printzipioa zeharkakoa izatea politika publikoetan. Hori, nazioarteko izendapenarekin bat, genero zeharkakotasunaren estrategia da (*gender mainstreaming*). Funtsean, helburua da genero perspektiba txertatzea politika publikoen diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan.

Departamentu bakoitzeko genero berdintasuneko unitateak izanen dira, antolamenduari dagokionez, Nafarroako Gobernuako Departamentu guzti-guztietan eta baita ere diseinatuko diren politika, plan, proiektu eta programetan berdintasuna txertatzen dela sustatuko eta zainduko dutenak.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari emakume eta gizonen bigarren berdintasun programa egin zen 2016. urterako. Programa honek, garatuko bazen, eskatzen zuen Genero Berdintasuneko Unitateak finkatzea eta genero ikuspegia indartzea laneko prozesuetan eta departamentuetako politiketan.

Hau lan baten hasiera da eta denboran zehar iraunkorra izanen den jarraitutasuna izanen du, urte bukaeran programaren emaitzak ebaluatuz eta helburu eta ekintza berriak barne hartuko dituzten urteko programak eginez. Horrela, erantzuna ematen diogu Nafarroako Gobernuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa eta genero ikuspegia beren politika, jarduera eta jarduketetan zeharkakotasunez txertatzeko hartutako konpromisoari eta erronkari.

Berdintasuneko unitateen ardura da genero ikuspegia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa txertatzea Nafarroako Administrazio Publikotik egiten edo sustatzen diren egintza, arau eta politika guztietan.

2016ko helburuak honako hauek izan ziren:

## Helburu komunak

**1.HN.** Genero Berdintasuneko Unitateak finkatzea departamentuetan, berdintasun printzipioa eta genero ikuspegia txertatzeko giltzarri gisa.

**2.HN.** Genero ikuspegia politika publikoetan eta departamentuetako laneko prozesuetan txertatzeko behar diren baldintzak sortzen laguntzea.

**3.HN.** Nafarroako Foru Administrazioako komunikazio eremuan aldaketa sustatzea, sexistak ez diren elementu eta edukiak txertatuz.

## Helburu sektorialak

**4.HN.** Emakume eta gizonen parte-hartzea ezagutzea eta izan daitezkeen genero desberdintasunei antzematea kulturaren, kirolaren eta gazteriaren alorretan, beren programetan elementu zuzentzaileak txertatzeko, halakorik behar balitz.



Interreg Europa tokiko/eskualdeko gobernuendako laguntza programa bat da, beren politikak hobetzeko esperientzia trukearen eta arazo komunendako konponbide bilaketaren bidez. FEDER funtsek finantzatzen dute eta proiektuen sustatzaile/bazkideen aldetik kofinantzazioa eskatzen du.

Helburua da ETE berrien sorrera eta garapena laguntzea kulturaren eta sormenaren industriari (CCI, ingelesezko siglak), sektore honekiko laguntzan gaitasun eta esperientzia maila desberdinak dituzten eskualdeen arteko lankidetzaren bidez.

CRE-HUB egitasmoak zortzi partzuer ditu eta Italiako Basilicata eskualdea du buru. 1,48 milioiko aurrekontua du eta Interreg Europek %85 finantzatzen du. Nafarroan, Nafarroako Gobernuak 165.455 euro inbertituko ditu, lankidetzaren programaren %85.

### Bazkideak:

Bazkide burua: Basilicata Region (Italia).  
Autonomous Region Friuli Venezia Giulia (Italia).  
Regional Development Agency Centru (Errumania).  
Central Transdanubian Regional Innovation Agency Nonprofit Ltd. (Hungaria)

University of Latvia (Letonia).  
Regional Development Agency of the Ljubljana Urban Region (Eslovenia).  
ADDICT – Creative Industries Portugal

Iraupena:



Proiektuan lagun ditugu:

### Stakeholder-ak

**Zinea eta ikus-entzunezkoak** Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterra  
<http://clavna.com/>

**Liburuak eta prentsa** AEGRAN, Arte grafikoen elkarte / Klusterren sarea  
<http://www.aegran.org/>

**Arkitektura** Nafarroako Arkitektura Eskolako AS20. <http://www.as20.org/bal/>

**Sormen industriak** Berrikuntzarako, Sormenerako eta Kulturarako Nafarroako Elkarte <http://aiccnavarra.org/>

**Irakaskuntza** Iruñeko Arte Eskola  
<http://www.escueladeartepamplona.com/>

**Toki entitateak** Iruñeko Udala  
[www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

CreHub proiektua aztertzeke lehen bisitaldia Materan antolatu zuen Basilicata eskualdeak 2016ko irailaren 15ean eta proiektua inauguratzeko eta abian jartzeko asmoz egin zen.

<https://www.interregeurope.eu/crehub/>

### Mezenasgoa

Mezenasgo batzordearekin batera [www.mecna.es](http://www.mecna.es) webguneko informazioa [culturanavarra/mecenazgo-ra](http://culturanavarra/mecenazgo-ra) bideratu zen, hura izaki proiektuak jasotzeko gune bakarra.

### Gazteriaren Plana

Departamentuarterko Batzordeak parte hartzea, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan, Gazteriaren Bigarren Foru Plana prestatzeko.

### Nafarroako Kultura Kontseilua


Informazioa eguneratzea [culturanavarra.es](http://culturanavarra.es) webgunean:

<http://www.culturanavarra.es/es/consejo-navarro-de-cultura>



# Ondare Historikoaren Zerbitzua

---



Ondare Historikoaren Zerbitzuaren helburua da gure ondare historikoa erregistratzea, babestea/kontserbatzea/ ikertzea, birgaitzea, zabaltzea eta dinamizatzea. Bere zuzeneko jarduketaz gain, funtsezkoa da ondare hori gizartera hurbiltzea eta gizartea inplikatzea haren kontserbazioan, erabileran eta kudeaketan. Zerbitzuaren egitura aldatu egin da azken hilabeteotan. Urriaren 5ean argitaratu zen 88/2016 Foru Dekretutik aitzina, bi ataletan dago antolatuta: lehendik zegoena, Ondare Arkitektonikoarena, eta berria, Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiarena, aurreko bi atal batzen dituen: Erregistroaren eta Ondasun Higigarriena, batetik, eta Arkeologiarena, bestetik.



Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak programa bat da Kultura Ondareari buruz sentsibilizatzeko, Europako Kontseiluak sustatua, Europar Batasunarekin batera. Espainian, jardunaldi horiek Espainiako Kultura Ondarearen Institutuak koordinatzen ditu eta, autonomia erkidegoekin batera, antolatzen.

Ate irekien jardunalditzat jotzen dira, eta, urtero, ondarearekin eta gizartearekin lotutako gai interesgarria dute ardatza. Aurten “Guztion ondarea” izan dute leloa, eta helburua, berriz, izan da administrazioak eta herritarrak kultura ondarearen kudeaketan duten lankidetzaz bultzatzea eta lankidetzaz horri ikusgarritasuna ematea, ondarearen alde lan egiten duten talde eta elkarten jarduketak sustatuz eta babestuz, eta agerian utziz herritarrek nola laguntzen duten ondarearen kontserbazioan eta hedapenean.

Jardunaldiak Nafarroan egin ziren, urriaren 1ean eta 2an. Festa giroko asteburu trinko horretan, askotariko ezaugarriak zituzten 106 jarduera egin ziren, Foru Komunitate osoko 59 herritan banatuak. Haien antolaketan eta gauzatzean, lankidetzaz aritu ziren, kasuan kasuko udalez gain, mota askotako 64 entitate, eta Nafarroako kultura ondarearen kudeaketan inplikaturako erakunde mota guztiak zeuden horien artean (administrazio publikoak, maila autonomikotik herrien mailara arte; jabe partikularrak; elkarteak, fundazioak, taldeak eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate soziokultural batzuk; esparru pribatuko enpresak eta profesionalak etab.).

Horrela, Ondareari buruzko Europako 2016ko Jardunaldietan, urte horretako testuinguru tematikoaren baitan, parte-hartzaileen kopurua inoiz baino handiagoa izan da Nafarroan. Jardueretan 12.000 bat pertsona aritu ziren.



Ondare Arkitektonikoaren Atala arduratzen da gure komunitateko arkitektura ondareari dagokion guztia kudeatzeaz. Gorago aipatutako txostenez gain, hauek izan dira 2016an garatu diren jarduketarik garrantzitsuenak.

2016an, Ondare Arkitektonikoaren Atalak honako jarduketa hauek egin ditu:

- **Fiteroko monasterio zaharraren klaustroa eta gelak zaharberritzea**
- **Iruritako Dorrea zaharberritzea**
- **Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzea**
- **Irantzuko monasterioko komun publikoak eta galdaren gela eraberritzea**
- **Erriberriko Andre Maria elizako Atearen zaharberritze arkitektonikoa eta kontserbazio proiektua.**
- **Leireko monasterioko eraikin osagarria zaharberritzea, bisitariak hartzeko.**
- **Iratzeko monasterio zaharreko abade-eliza kontserbatzeko jarduketak.**
- **Besteak beste, hauek azpimarra ditzaugu:**



### **Fiteroko monasterio zaharraren klaustroa eta gelak zaharberritzea**

Fiteroko Andre Maria monasterioa monumentu historiko-artistiko izendatu zuten 1931ko ekainaren 3ko Dekretuaren bidez. Zistertarrek Nafarroan eraikitako monasterio handietako bat da, eta horren eraikinak XII. mendetik XVIII.era altxatu ziren. Bere eraikinek titular desberdinak dituzte. Nafarroako Gobernua eraikuntza baten jabea da: haren beheko solairua Erdi Aroko jangela zaharrari dagokio eta goiko solairua, berriz, liburutegi zaharrari. Nafarroako Gobernua sukalde zaharraren jabea ere bada.

Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzaren 2001eko lagapen erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernua klaustroaren eta hari erantsitako gelen titularra ere bada, 30 urteko epean. Obrek iraun duten bederatzireteetan, inbertsio osoa funts publikoetako 6,4 milioi eurokoa izan da, eta kopuru horretatik %88 Nafarroako Gobernuak ordaindu du eta gainerako %12 Europar Batasunaren funtsetatik etorri da, 2014tik 2015era bitartean eman baitira.

2016. urtean zehar, ia-ia bukatu da klaustroaren zaharberritzea; orobat liburutegi zaharraren, sukalde zaharraren eta Erdi Aroko jangelaren zaharberritzea.



### Irurritako Dorrea zaharberritzea

Irurritako Dorrea kultura-intereseko ondasun deklaraturata dago (1949ko apirilaren 22ko Dekretua). Bere inguru babestua Nafarroako Gobernuaren 2013ko maiatzaren 22ko erabakiak mugatu zuen. Baztango Udalarena da, duela urte batzuk eskuratu baitzuen; eraikinak zenbait denbora darama inor bizi ez dela.

2016an barrena, eraikina sendotu da, estalkia eta zurezko barne egitura desmuntatuta. Horrela geldiarazi egin da dorrea aurri osoan egoteko eta lurreratzeko arrisku nabarmena. Construcciones Leachek egin ditu obrak. Uztailean hasi ziren eta abenduan bukatu. Haien kostua ia 410.000 eurokoa izan da



### Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzea

Nafarroako Foru Komunitateak, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak, “La Caixa” Banku Fundazioak, Nafarroako Kutxa Banku Fundazioak eta Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak hitzarmena sinatu zuten 2016ko maiatzaren 31n, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko.

Esku-hartzea zenbait fasetan eginen da, 2016 eta 2020 bitartean, hasiera batean zenbatetsitako aurrekontua 3.800.000 eurokoa dela; hor sartzen dira obrak gizarteratzeko eta zabaltzeko proiektua. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu ditu proiektuen prestaketa eta obren zuzendaritza. Lan hau era koordinatuan eginen dute Ondare Arkitektonikoaren Atalak –egitura mailako lana eginen baitu– eta Erregistroaren,

Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak –hormen estalduren eta eskultura monumentalaren tratamenduaz arduratuko baita–.

Munta handiko esku-hartzea denez gero, klaustroko obra fasetan banatu da, eta horiek, printzipioz, bat datoz lau hegalekin. Eta fase bakoitza –hegal bakoitza– bi proiektutan zatitu da: obra zibilarrena (igeltsero- eta hargin-lanak), eta apainketari eta azalaren tratamenduari dagokiena. 2015ean lehen fasea egin zen: egokitzapen orokorra. Eta 2016an arkitekturako bigarren kanpaina egin du Construcciones Leachek eta hirugarrena, zaharberritzekoa, Sagarte SLk.

Atalean egiten diren erregistroko eta ondasun higigarrien babeseko oinarritzko lanez gain, honako jarduketak hauek nabarmenduko ditugu



### Erriberriko Andre Maria elizako portada zaharberritzea

Nafarroako Gobernuak, 2015eko ekainaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, baimena eman zion Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiarri 300.000 euroko urte anitzeko gastua egiteko konpromisoa har zezan, eta baimena eman zuen Nafarroako

Gobernuak, Gondra-Barandiaran Fundazioak eta Nafarroako Ondare Historikoa Kontserbatzeko Fundazioak –Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoa bera– hitzarmen bat sinatzeko, Erriberriko Andre Mariaren elizaren portada zaharberritzearen. Zaharberritze horretarako hitzarmena 2015eko ekainaren 11n sinatu zen.

Obrak 2015eko urrian hasi zituen Sagarte SL enpresak eta egiteko epea 11 hilabete eta erdikoa zen. Horren ondorioz, 2016ko urtearen amaieran bukatu ziren obrak. Haien kostu osoa 475.000 eurokoa baino zertxobait handiagoa izan zen. Eraitza bikaina izan da. Portadak hein batean berreskuratu ditu polikromia historikoak. Gainera, zaharberritu bitartean, aldamia ireki zen bisita publiko gidatuak egiteko, eta azkenean 2.000 pertsona baino gehiago etorri ziren. Horrez gain, baimena eman zen hainbat talde etor zitezien, bisita antolatu berezietan (zaharberritzaileak, historialariak, arkitektoak, irakaskuntzako eta unibertsitateetako profesionalak, eskoletako taldeak, enologoak eta mahastizainak, harginak, Nafarroako Kultura Kontseilua, parlamentariak, kazetariak...)



### Aralarko San Migeli buruzko azterlanak eta esku-hartzeak

Egindako esku-hartzeak zenbait arretagune izan dituzte. Lehendabizi, Aralarko Aingeruaren irudiaren inguruko azterlanak eta esku-hartzeak. Nafarroako Museoaren laborategietan alde aurreko azterlanak egin ostean, honako ekintza hauek egin ziren: kalteen mapa eta dokumentazio fotografikoa, piezaren ordenagailu bidezko tomografia axiala –materialaren ahitzea, pitzadurak eta arrailak aztertzeako–, materialen karakterizazioa DFRX analizatzaile eramangarriarekin, eta zur espezieen azterlan dendrokronologikoa eta karakterizazioa. Babes tekniko ere eman da, aldare erromanikoaren argazkiak egiteko.



### Tuterako Katedralako Judizioaren Atearen alde aurreko azterlanak

Aldez aurreko azterlanek ahalbidetuko dute Tuterako Katedralako Judizioaren Atea zaharberritzeko proiektua prestatzea. Azterlan horien azken urrats gisa, irailean azterketak egin ziren han bertan, eta, horretarako, aldamiaoa paratu zen, adituek gertutik baloratu ahal izateko gure ondareko elementu bikain honen xehetasun guztiak. Sagarte enpresak eta bere talde teknikoak, Ondasun Higigarrien eta Ondarearen Erregistroaren Ataleko teknikariek zuzenduta, azken azterlanak egin zituzten. Inbertsioa 27.200,54 eurokoa izan da.



### Nanban lakazko lanak hedatzeko proiektua

Japoniako Nanban lakazko lanak Japoniatik Espainiara etortzen ziren luxuzko salgaiak izan ziren XVI. eta XVII. mendeetan, lehen jesulagunak herrialde hartara iritsita Iberiar Penintsularen eta Japoniaren artean izandako topaketaren fruitu, horrexek artelanen trukea ekarri baitzuen. Ondare baliotsu hau hedatzeko, erakusketa egin zen Nafarroako Museoaren kaperan, 2015/10/26tik 2016/02/28ra. Doako bisita gidatuak egin ziren igande eta jaiegunetan, eskuorriak argitaratu ziren gaztelaniaz/euskaraz eta ingelesez, katalogoa eta azterlan zientifikoa argitaratu zen gaztelaniaz eta separata egin, euskaraz eta ingelesez (hasieran 400 ale plazaratuta) eta hitzaldien eta tailerren zikloak egin.



### Jarduketa arkeologikoak

2016an, Nafarroan 24 esku-hartze programatu dira, Nafarroako Indusketen Planaren baitan. Aztarnategiek tarte kronologiko luzea hartzen dute, eta kronologia historikoko tokiak nabarmentzen dira: erromatarren garaikoak (Pirinioetako, Zalduako eta Artzibarko galtzadak, eta villa erromatarrik: Piecordero, Cascanten dagoena, eta El Villar, Ablitasen dagoena), Erdi Arokoak (Amaiurko, Irulegiko eta Garañoko gazteluak) eta Aro Modernokoak (Eugiko munizioen fabrika).

Larrialdiko esku-hartzeak 34 izan dira, eta lotuta daude nagusiki hiri arkeologiari, eta Nafarroako Ubidearen eta haren ureztaketa berrien obrei. Alkerdiko mendigune karstikoa karakterizatzeko esku-hartzea



ere nabarmentzekoa da. Izan ere, Alkerdi II zuloa aurkitu zen, eta horrek Goi Paleolitoko labar-artearen lehen pinturak ditu.

Santa Criz hiri erromatarren indusketa arkeologikoak (2012-2015) bukatu ondoren, bisita publikoa egiteko egokitu dira induskatutako bi eremu nagusiak (foroa eta nekropolia), bidexka autogidatua prestatu eta azalpen panelak ipinita.

Nafarroako udalerrri txikietan ondare arkeologikoari balioa emateko lanarekin jarraituz, Garinoiango bidarria eta Iruñelako hilarri erromatarra jarri dira aipatu bi herri horietan.

Eremu Arkeologiko gisa Interes Kultureko Ondasun deklaratu dira bi aztarnategi: Santa Criz hiri erromatarra

(Eslaba) eta Los Cascajos Neolitoko herria (Los Arcos).

Bisitatzen ahal diren aztarnategi arkeologikoetako urteko mantentze-lanak egin dira, eta, 2016an, arreta berezia eman zaio Andelosko ur sistemari.

Ondare Arkeologikoa handitzeko lanak bi alderdi ditu: ondare higigarria eta higiezina. Lehen Nafarroako Gobernuaren arkeologia funtsetan gordetzen da. Aurten, funts horietan guztira 252 kubeta utzi dira, 43 aztarnategi arkeologikotatik hartutako material arkeologikoekin. Aztarnategi horiek Nafarroako Foru Komunitate osoan daude banatuta, eta multzo hauek nabarmentzen dira: Legintxiki (Etxauri, Goi Paleolitoa), San Pelaio IV (Arellano, Brontze Aroa) eta San Jurgi kapera (Erriberri, Erdi Aroa).

Ondare higiezinari dagokionez, hainbat udal-mugartetan egin dira prospekzioak (Nazar, Mirafuentes, Antzin, Esprontzeda, Urdiain, Etxarri Aranatz eta Arbizu) Nafarroako Inbentario Arkeologikoa egiteko. 148 aztarnategi berri katalogatu dira.

